

ARRASATE P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 31 / 587. zenbakia

Nazioarteko Zazpinako Errugbiko IV. Topaketa eta Garagardoaren Festa Handia

Hamabi talde izango dira
zapatu arratsaldean Atxabalpeko zelaietan



ORAIN ETA HEMEN: UDALBATZARRAREN OSOKO BILKURA/7 • KIROLA: BESAIDAKOAK TOLOÑORA/10

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

**ARANZABAL
KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87


Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA/ Txakurak, suelto ala lotute?



ISIDRO SÁNCHEZ
Jubilaua



MARIA AYLLON
Langillie



JOSUNE FERNÁNDEZ
Langillie



MARIA JESUS SALTERAIN
Etxekoandrie



FABIAN MARTÍN
Langillie



DAVID ARNAIZ
Ikaslie

Neure ustez, txakurrek lotute juen biherko leukie. Izen be, behin baiño gehixagotan ikusi dot tabernaren baten txakurre zapaldu eta arazuek eukittie. Ziortan txakur asko daguz.

Kalien egoteko, txakurrek lotute, beti. Udalpe inguruen bizi naz, eta oin dala gutxi, bi txakurren arteko borrokie ikusi neuen. Txakur bat lotute euen, baiñe beste txakurre ez.

Nik txakur bat dauket, eta gurago dot suelto badago. Hala eta be, txakur peligrisuek muturrekue euki biherko leukie. Holan, nahiz eta suelto egon, ezin izengo daue miñik egin.

Txakurak jabiari kasu egi-tten badutzo, ez dot uste arazorik dagoenik. Hala ez bada, lotute juen biherko leukie. Amorrur haundixaguet emuten dust kalien kaka egi-tten dauenien.

Animalixek asko maitte ditut nik, eta betidanik euki izen dot ehiza-txakurre, nahiz eta ehizan ez egin. Hala eta be, kalien ibiltteko, txakurrek lotute juen biherko leukie.

Neuk uste dot txakurrek kalien ibiltteko lotute egon biher diela. Pentsetan dot pertsonendako hobia dala txakurrek lotute egotie, nox edo nox burrukaren bat edo beste ikusi dot-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK LORATEGI TXUKUNAK Irakurle batek baino gehiagok jakinarazi digu herriko lorategiak, eta horien artean biribiluneak, oso txukun daudela. Zenbait herritar oso gustura daude lorategiak zaintzen ibiltzen diren langileek egiten duten lanarekin. Are gehiago, herriari kolore eta bizitasun handiagoa ematen diotela azpimarratu dute. Lan hori egiten jarraitzeko animatu dituzte langile horiek.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Aspaldiko Ganadu Azoka

Hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetako azoka ekarri gura izan dugu gogora aste honetan.

ORAIN ETA HEMEN /7

Atxiloketa Euskadiko Kutxan

Eguazten goizean, Garzonen aginduz, Euskadiko Kutxan lan egiten duen Iñaki Mallagarai atxilotu zuten.

KIROLA/12

Zaldibarko finala

Bihar, Zaldibarko Txapelketako finala jokatu da. Finala arratsaldeko bostetan hasiko da.

ASTEKO DATUA

80

UMEK PARTE HARTUKO DUTE UMEEN DANBORRADAN

Laurogei umek baino gehiagok parte hartuko dute SUDCek antolatzen duen Umeen Danborradan. Ekainaren 15ean egingo dute danborrada, eta gutxieneko ume kopurua lortu dute dagoeneko.

BESTE EKESANA

“Nik, Putz aldizkariaren bidez, elkarrizketa klasikoaren errebindikazioa egin nahi izan dut.

Deskafeinatu gabeko elkarrizketa; pertsonaia agertuko duen elkarrizketa, ez pertsonaia hori gizar-tean ondo geratzeko erabilia izango den elkarrizketa. Inplikazioa duen elkarrizketa. Gauza bat dago garbigure buruaren ahalmena mugatua da. Ezin gintezke hiru orduz 20 gairi buruz zorrotz eta mamitsu jardun. (...) Denok gara horrelakoak. Zergatik ezkutatu? Elkarrizketa hura ni ezagutzeko tresna bat zen. Zer egin behar dut, Bertsolari aldizkarian dudana lana eta Idazleen elkartearen hitzaldiak galtzeko beldurrez bertsolaririk eta Galeuskaririk ez kritikatu?”

PAKO ARISTI
‘EUSKALDUNON EGUNKARIA’/02-05-25

HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



Gezurretan edo (I)

Posta elektronikoz heldu zaizkit Jenin hirian terrorismoaren aurka joatearen aitzakiaz eginiko sarraskien irudiak. Txetxeniakoak lortzea gura duenak, badauka barrenak nahasteko irudi sorta amaigabea.

Terrorismoaren aurkako gurutzada pizteko erabili zituzten irailaren 11ko atentatuak. Jadanik onartu dute amerikarrek jakinean gainean zeudela. Horrez gain pentagonoaren aurkako “atentatua” abiorik ez zela egon demostratzen duen amerikar ejertzitoko irudiak ere pasa dizkirate. Inoiz benetan gertatutakoaz jabetzea ametsa besterik ez da, edo amesgaiztoa? Denak balio du, gezurra edo egia, terrorismoaren aurka bada.

Terrorismoaren definizio linguistikoa zer den jakin nahi duenak jo beza hiztegiara. Egunerokotasuneko praktikan erabilitakoa aldiz, mass-medien

ondorioz, ez dator bat garai batean bertan idatzitakoaz eta egunero entzuten dugunaz. Gaur egungo sasiglobalizatzaileek erabiltzen duten terminoa definitzen ausartuko naiz. Terrorismoa sistema neoliberaltan oinarritutako estatuen edo interesen aurka erabilitako indarkeria da. Beste batzuk ez dira terroristak, demokrata paramilitarrak baizik.. Are gehiago, estatuen indarkeria, edozein neurritakoa izanda ere, neurri baketzailerak dira.

Hipokresia honekin asetzetik ez badaukazu, globalizazioarena botako dizut. Globalizazioa zer den eta beraiek globalizazioaz zer saldu gura diguten ez baitatort bat. Aurrez aipatu ditut sasiglobalizatzaileak, ez baitira benetakoa. Globalizazioaren alde gaudenok, ez dugu neoliberalismoa globalizatu nahi, gauzak askoz gehiago baizik. Globaliza dezagun osasuna, hezkuntza, boterea, multinazionalen etekinak, lana.....

“Terrorismoa sistema neoliberaltan oinarritutako estatuen edo interesen aurkako indarkeria da”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 31**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 25**
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65
- DOMEKA, 2**
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 3**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- MARTITZENA, 4**
Azkoaga. Iturriotz..... 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 5**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- EGUENA, 6**
Irizar. Erguín 11..... 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Delai 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIARI**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINTEA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

ARRASATE MUSIKAL
Datorren egunean, ekainaren 6an, 18:30ean, Arrasate Musikalen, biolako eta biolontxeloko ikasleek kontzertua emango dute.

ERGUIN ESKOLAKO JAIA
Gaur, egubakoitza, 16:30etatik 20:00etara, Erguin Herri Eskolan jaia egingo dute. Lantegiak, puzgarriak, ikasleen musika emanaldiak eta karatea egongo dira. Baita ikasleen lanen erakusketa ere.

INGURUMENA BERBAGAI
Ekainaren 3tik 8ra, Monterronen, *Amalurraren defentsan* izeneko erakusketa antolatu dute. Eta ekainaren 5ean, Monterronen, Alberto Frias abokatuak *Zergatik ingurumena- ren eguna?* izenburuko berbaldia egingo du.

EUSKAL MUSIKA TRESNAK
Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Amaia antzokiko *hall*-ean, Juan Mari Beltranek euskal musika tresnen gaineko emanaldi didaktikoa egingo du.

MENDI MARTXA
Bihar, 09:30ean Arbolape- tan edo 10:00etan Garagar- tzan, Untzillara mendi martxa. Gero, bazkaria Untzillan. AHTren Aurkako Asanbladak antolatuta.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curricu- luma Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
Zapatua
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Ale- cop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
Domeka
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñar- ra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Hiesaren aurkako astea antolatu zuten


Hainbat taldek hiesaren gaineko astea antolatu zuten. Berbaldiak, Goikobalu Abesbatzaren kantaldia, EH Sukarra, Zakarrak eta AM-53 taldeen kontzertuak, hiesaren gaineko diapositiba emanaldiak eta bertsolariak izan ziren. Horrez gain, Seberren mahai informatiboa jarri zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Zintzurra"

Eztarriko irtenunea.



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Kepa Akixo eskulturagilea

Martitzenean, hilaren 4an, Kepa Akixo eskulturagile aretxabale- tarra izango da Arrasate Irra- tian. 10:45ean elkarrizketatuko dugu Aretxabale- tako udaletxe- an erakusketa zabalik duen eskulturagilea. Kepak 23 urte daramatza eskulturagintzan, eta lanik gehienak zuraz egin dituen arren, brontzea ere erabili izan du. Astelheenean, Amaia Zubi- ria kantariak plazaratu duen diskoa aurkeztuko dizuegu. *Haa- tik* izena du, eta kantu berriak eta zaharrak batzen ditu lanak.

'Shin Chan'-en alde eta kontra

Arrakasta handia izaten ari da Euskal Telebista eskaintzen ari den marrazki bidadun batek, *Shin Chan*-ek. Baina batzuk alde badaude ere, beste batzuk kontra agertu dira. Marrazki bidadun horien gaineko aldeko eta kontrako iritziak batu ditugu, eta berriro entzungai izan- go duzue zapatu eta domekan. Iñaki Agiriano medikuari egin- dako elkarrizketa ere errepi- katuko dugu. Nikaragua joa- tear da Iñaki, osasunaren gai- neko berbaldiak egitera.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 26	6 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 24	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	36,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	20 °C	13 °C	19,6 l/m ²
Eguena, 23	23 °C	19 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 24	24 °C	7 °C	9,6 l/m ²
Zapatua, 25	16 °C	10 °C	- l/m ²
Domeka, 26	12 °C	6 °C	4,5 l/m ²
Astelehena, 27	16 °C	7 °C	- l/m ²
Martitzena, 28	23 °C	7 °C	2,8 l/m ²

Bergariko San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHIZTETAN

Sobradunek Amaia Antzokia bete zuen


Zapatu gauean, Sobradun antzerki taldeak *Hablar es de bobos* antzezlan aurreratu zuen, eta sekulako arrakasta izan zuen; izan ere, Amaia Udal Antzokia betetzeaz gain, kanpoan antzokira sartu ezinda geratu zenik ere izan zen. Antzezlanean umorea eta kritika izan ziren protagonistak, eta gaur egungo gizartearen komunikazioak daukan garrantziaren inguruan egin zuten berba. Horretarako, egoera ezberdinak antzeztu zituzten, eta beste behin, komunikabide eta publizitatearen munduak berebiziko garrantzia izan zuten.

Etxeko traste zaharrak noiz bota

Debagoieneko Mankomunitateak eskuko egutegiaren bitartez etxeko traste zaharrak noiz bota behar diren jakiteko kanpaina jarri du martxan. Trasteak jasotzeko egunak hileko bigarren eta laugarren astearteak izango dira. Bilketa gauez egingo da. Trasteak arratsaldeko zortzieta-tik gaueko hamarrak bitartean utzi behar dira edukiontzien ondoan. Abuztuan eta jai egunetan ez da zerbitzurik izango. Etxean traste zaharrak dituztenek ekainak 11 arte itxaron beharko dute, orduan egingo da eta hurrengo bilketa.

San Juanetako karroza gertu

San Juan jaiak gero eta gertuago daude, eta Crisanto Margusino buru-belarri ari da hurren danborradarako karroza egiten. Aurten Crisantok ideia bitxia izan du, izan ere, Arrasateko plazan antzina egon zen kioskoa irudikatu du danborradarako. Sei hilabete inguru daramatza karroza egiten. Zabaleran hiru metro eta erdi izango ditu, eta lau metro eta erdi luzeran. Margusinok ez zuen ezagutu kiosko zaharra, eta argazki batetan oinarritu da berau egiteko.



Elkartasun Eguna Arrasaten

Herri behartsuenei elkartasuna erakusteko asmoarekin, Elkartasun Eguna izan zen zapatuan Arrasaten. Goizeko hamarretatik arratsaldeko zortziak arte, erakusketak, saltokiak, umeendako jolasak eta kale antzerkia izan ziren Seber Altuben. Maiatzean, ekintza gehiago egingo dituzte.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Euskalkiaren alde

Duela bi aste, Badihardugu elkarteak *Deba Ibarretik Euskal Herrira* liburua argitaratu zuen, eta bihar, Elgetan, Euskalkiaren Eguna ospatuko dute. 2000n jaio zen Badihardugu, ibarreko berbeten alde lan egiteko, eta lan handia egiten ari da. Duela hainbat urte, euskararen bizi iraupena ziurtatzeko, euskara batua

sortu zuten eta euskaldun guztiak batuko gintuen hizkuntza arautu zuten: arau zehatzak finkatu eta batuari ahalik eta erabilera handien ematen ahalegindu ziren. Nire belaunaldikook ikastetxeetan euskara batua ikasi genuen, euskarazko telebista eta komunikabideetan ere batua jaso dugu, eta konturatu barik gure berbeta edo hizkera ahaztu egin

dugu. Askotan esan ohi da Mondragoeko euskara galtzen ari dela, jende nagusiak bakarrik berba egiten duelako. ARRASATE PRESSen, Mondragoeko euskararen idatzitako pare bat atal sortu dugu. Eta egia esatearren, gaitza izaten da hemengo euskararen ondo idaztea, ez gaudelako ohituta eta arauak ez dakizkigulako. Badiharduguk mesede handia egingo dio ibarrari bai eta ere guri.

ASTEKO IRUDIA



NEREA MAKAZAGA

TRIKITILARIEN DOINUAK NAGUSI ARRASATEKO KALEETAN ZEHAR

Joan den zapatuan, Arrasateko Trikitilarien Elkarteak hamaikagarren urteurrena ospatu zuen. Goizeko hamabi eta erdietan, Trikitixa Eskolakoek kalejira egin zuten. Arrasateko kaleak girotzen ibili eta gero, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, bazkaria izan zuten Uarkape jatetxean. Bazkalostean, arra-

tsaldeko seiak aldera, herriko plazan umeendako jolasak izan ziren, eta jarraian, Zarauzko Etxabe anaien musika emanaldia izan zen. Azken baten, zapatuan, trikitiaren doinuak izan ziren nagusi herriko kaleetan, eta astebururo entzuten ez direnez, herritarrek asko eskertu zuten. /X.U.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

GIZARTEA/ Ferixalekuko azoka egiteko ohitura ez da zeharo galdu

Bigarren eta laugarren egubakoitzetako azokak bizirik dirau oraindik

IKER BARANDIARAN

Arrasaten, hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan azoka egin izan dute. Lehen, baserritar mordoa joaten ziren eta azoka oso handia zen. Poliki-poliki, jende kopurua izugarri murriztu da. Baina oraindik badago nolabaiteko tradizioa, txikia bada ere.

Urtarriletik martxo edo apiril arteko egubakoitzen baten Arrasateko tren estazio zaharraren ingurutik igaroz gero, agian, lan-rober eta furgonetan batzuen inguruan baserritar multzo bat ikusiko zenuten. Egun, landare eta zuhaitzak jartzeko sasoiak, urtarriletik martxo artean, hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan, Elgeta eta Zaldibar aldeko bost bat baserritar landare eta zuhaitzak saltzera etortzen dira: *Insignis* pinuak, *Douglas*-ak eta izei gorriak, besteak beste. Bazkalostean, tren estazio ondora heldu eta inguruetatik hurre-ratzen diren beste baserritar batzuekin kontu-kontari igarotzen dute arratsaldea. Arrasateko baserritarrez gain, Angiozar, Eskoriatza, Aretxabalèta, Leintz Gatzaga eta beste herri batzuetakoek egiten dute topo landare eta zuhaitzak erosten. Gehienak edadetuak izaten dira.

BASERRITIK IRTETEA DA HELBURUA

Zaldibarko Gantzaga auzoko Lazaro Garitaonandia gidatzeko baimena atera zuenetik hona etortzen da Arrasatera landareak saltzera, eta ondo ezagutzen ditu inguruko baserritarrek. "Inguruko baserritarrek erostera, enkarguak egitera eta berriketan egitera etortzen dira. Azken baten, beti baserrian sartuta egon beharrean, hemen elkartu eta baserriko kontuez berba egiten oso gustura egoten gara. Gero, dagoen planaren arabera, askaria egiten dugu edo ez".

Bizkai aldeko lauzpabost baserritar horiek saltzera edo berriketan egitera joaten diren moduan, koadrilatxo bat estazio zaharraren ondoan elkartu eta askaria egiteko elkartzeko da hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan, urte osoan. Bi aste-an behingo hitzordu horri kale-rik egiten ez dion koadrila hori honako hauek osatzen dute: *Santamaña* baserriko Mateo eta Bixente Iturbe anaiek, *Boliñete*-ko Joxe Akizuk eta elorriar batek, besteak beste. Hilabetean birritan ez diote ukorik egiten aspaldiko ohitura horri, aspaldi kalean bizi diren arren.

Egun bizi dugun gizarte motarekin eta bizimoduarekin alde-ratuta, bitxiak iruditzen zaizki-gu ohitura bi horiek: bata, bide bazter baten landare eta zuhaitz



INDALECIO OIANGUREN / ARRASATEKO UDALA

Arrasateko lehenengoko azokak Meatzerreka inguruan egiten zituzten, baina 1902an, egungo Seber Altubera eraman zituzten.

batzuk saltzeko Arrasatera etortzea, eta, bestea, hilean bi aldiz askaria egiteko elkartzea. Izan ere, ohitura bi horiek Arrasateko aspaldiko Ferixalekuan oinarrituta daude.

1902. urtean, orain Seber Altube plaza dagoen lekuan, Berdura Plaza izena zuen eraikina egin zuten. Haren barruan baserrietako jakiak saltzen zituzten eta eraikinaren kanpoko aldean, berriz, ganadua, baserriko lanabesak eta beste hainbat gauza. Ganadu azoka hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan egiten

zuten, beste azoka batzuekin aldi berean ez egiteko.

Geroago, 1926. urtean, Berdura Plaza zeritzon eraikina kendu, eta ganaduen eta bestelakoen azoka eraman zuten orain Uarkape Udala Pilotalekua eta ikastola dauden lurzorura, erre-karen beste aldera. Ez zuten eraikinik egin. Astoak gordetzeko aterpe txiki bat besterik ez zuten jarri hantxe.

Hortik dator Ferixalekua izena. Eta 70eko hamarkadara arte, hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan, azoka egin zuten

hantxe. 70eko hamarkadaren hasieran, ordea, erreka estali eta etxebizitzak egin zituzten. Azoka horren etorkizuna kolokan egon zen arren, tren estazio zaharrera eraman zuten aspaldiko azoka hori.

Edozelan ere, ia denok kale-tar bihurtu garelako eta bizimodu erabat aldatu delako, geroago eta saltzaile eta erosle gutxiago hurreratu ziren kokagune berrira. Poliki-poliki, lanabesak saltzen zituztenak beste plaza batzuetara joan ziren. Horren guztiaren ondorioz, egun, base-

"Urtarriletik martxora artean, bi egubakoitzetan, bost baserritar zuhaitzak saltzen izaten dira"

"Koadrilatxo batek, bi astean behin, estazio zaharrean elkartu eta askaria egiten du"

"Azoka Seberretik Otalorara eraman zuten. Gaur egun, estazio zaharrean egiten dute"

rritar gutxi batzuk etortzen dira landare eta zuhaitzak saltzera.

Pena da denborak aurrera egin ahala gure herriaren historiako horrelako ohitura eta ondarea zelan desagertu eta moteldu diren ikustea. Asko aldatu dira gizarte eta bizimoduak. Hala ere, gutxi batzuk, urtarriletik martxo artean, saltzera eta erostera etortzen dira oraindik ere; eta bestalde, hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan askaria egiteko elkartzeko direnek horrelako ohiturak izan zirela gogora ekartzen laguntzen digute.

Pasarte bitxiak ere badira...

Oso gaitza da sasoi hartako argazkiak aurkitzea, baina garai haiek bizi izan zituzten protagonistak egon badaude, eta oroimenik ez zaie falta, ez horixe.

Abaroako adituek diotenez, XV. mendea ezkerreko, Arrasateko azokak Meatzerreka inguruan egiten zituzten, baita Santamasetakoa ere. Baina, halako baten, norbaitek azokako saltzaile bi hil zituen, eta horren ondorioz, Gipuzkoako Batzar Orokorrek herri barruan egiten ez ziren azokak debekatu egin zituen. Horrexegatik, herri barrura ekarri zituzten azokak, eta 1902. urtean, Berdura Plaza egin zuten Arrasaten. Orain Seber Altube plaza dagoen lekuan kokatuta zegoen; hasieran, solairu bakarra zuen, baina gerò beste bat jarri zioten. Goiko solairuan

musika jotzen zuten eta dantzaldiak egiten zituzten. Hortik dator *Verdura Dancing* delako kontu hori. Batek baino gehiagok ondo gogoratzen du *Angiozarko Itsua*-k ere hantxe jo zuela behin baino gehiagotan.

Berdura Plazaren barruan inguruko herrietako baserritarrek ortuko jakiak saltzen zituzten, eta eraikinaren kanpoko aldean hileko bigarren eta laugarren egubakoitzetan, ganadu azoka egiten zuten. Ganaduez gain, beste gauza asko erosteko aukera egoten zen, guztia ere oso giro alaietan. Kanpotik saltzera etortzen zirenen artean, Leon Salvador saltzaile eta berbontzia nabarmendu beharko genuke: duro baten truke bizarra mozteko labanak, erlojuak, aterkiak, mantak..., denetik saltzen zuen.

Halako baten, *Kataide* baserriko bati hogeituroren truke autoa ere saldu eizion. Ikustekoa izan eiz zen gizon hark saltzeko egiten zuena: labanekin mantak zulatu, aterkiari buelta eman eta gainetik ura bota... ez zen, ez, aspertzekoa. Geroago, Leon erretiratu zen, eta hura ere antzekoa eiz zen.

Dena dela, badaude kontu tristeak ere: 1915. urtean, lagun-minak ziren baserritar bi borrokan hasi eta bati pistola trabatu zitzaion bitartean, besteak labana sartu zion bihotzean.

Berdura Plaza kendu zutenean, azoka Ferixalekura igaro zen eta herriko tabernariak kexatu egin ziren azoka erre-karen beste aldean geratu zelako, urrunegi. Baserritarrek askari handiak egiten zituzten eta...

Hamaika mozio eztabaidatu zituen atzoko bilkuran udalbatzarrak

UBANE MADERA

Atzo hileroko osoko bilkura izan zuen udalbatzarrak. Eta, bilerako daturik nabarmenena da zinegotziek hamaika mozio landu zituztela. Tartean, Eudelena, Batasunaren ilegalizazioaren kontrakoa, torturen kontrakoa, eta ekaineko grebaren aldekoa izan ziren.

Horixe da atzoko bilkuraren daturik nabarmenena: udalbatzarrak landu zuen mozio kopurua. Denez, gainera, hori bai, gehienak ere, azkenaldian Euskal Herriko gainerako Udaletxeetan eztabaidatzen ari direnak dira.

Horrela, EAJren, EAren eta PSE-EEren artean, Eudelek onartutako "Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa" onartzea proposatu zuten. Besteak beste, ETari indarkeria behin betiko uztea exijitzearekin bat, euskal gizartearen aniztasuna defendatzen dute eta aukera politiko desberdinen ordezkaritzarengana errespetua eskatzen dute. Era berean, tortura, tratu txarrak eta bestelakoak baztertzeko dituzte. Mozio horren parean, Batasunak berea aur-



EAJK, EAK eta PSE-EEK batera aurkeztu zuten Eudelen mozioa.

keztu zuen. Torturak, tratu txarrak eta bestelakoak salatu zituzten, eta, herritarren eta ideien aniztasunaren alde egin; horren harira, proiektu politiko guztiendako berdintasuna eskatzen dute. Era berean, beste mozio batean, Batasunaren ilegalizazioa salatzen du Arrasateko Batasunak. Estatu espainiarraren izaera errepresiboa ere salatu zuten.

Horren aurrean, EAK mozio alternatiboa aurkeztu zuen,

horrek ere ilegalizazioa salatzen.

Bestalde, legedi antiterroristaren kontrako mozio bi ere aztertu zituen udalbatzarrak. Eta baita, pilotako euskal selekzioa aldarrikatzen zuen beste bi ere. PSE-EEK, bere aldetik, hezkuntzako kalitate legearen kontrako bat aurkeztu zuen eta EBK ekaineko grebaren aldekoa.

Baina, albiste hau idaztean bilera egin barik zegoen, hortaz, ezin dugu izan erabakien berri.

LABUR

Euskadiko Kutzako Iñaki Mallagarai langilea atxilotu zuten Garzon epailearen aginduz

Eguazten goizean, Euskadiko Kutzako bazkide den Iñaki Mallagarai mallabiarra atxilotu zuten bere lantokian, Garzon epailearen aginduz. Audientzia Nazionaleko iturrien arabera, ETA-EKIN sarearen finantzazioarekin ustezko harremana du Mallagarai. Euskadiko Kutxatik eskuratutako informazioaren arabera, polizia 13:30ak ingurua arte izan zen Euskadiko Kutzako egoitza nagusia. Besteak beste, atxilotutako bazkidearen kontuak blokeatu dituzte, bere ordenadorea eraman dute eta lantokiko armairua eta mahaiko kaxoiak miatu zituzten.

Erguin Herri Eskolako jaia ospatu dute gaur, egubakoitza, arratsaldean

Gaur, egubakoitza, Erguin Herri Eskolaren jaia ospatzen ari dira Udalara bidean dagoen eskolan. 16:30ean hasi dira eta 20:00ak arteko jaia izango dute.

Besteak beste, ikasleek egindako lanak, lantegiak, gaztelu puzgarriak eta antzinako jolasak izan dituzte. Baita umeek egindako musika emanaldia ere. Txirularen doinuak lagunduta, adibidez, *Shin Chan* marrazki bizidun ezagunen eta *Titanic* filmaren doinuak entzun ahal izango dira.

Horrez gain, 19:00etatik 19:30era karate saioa ere izango da.

Eugenio Barrutiabengoa arrasatearra Venezuelatik kanporatzeko arriskuan dago

Eugenio Barrutiabengoa *Arbe* errefuxiatu arrasatearra Venezuelatik kanporatua izateko arriskuan dago joan den apirilaz geroztik. Hemezortzi urte baino gehiago daroa Barrutiabengoak Venezuelatik bizitzen. Izan ere, 1981. urtean Frantzia atxilotu zuten eta han kartzelaratuta eta konfinatuta izan eta gero, Frantziatik bota egin zuten. Barrutiabengoa Venezuelara joan zen, ondorioz. Orain, eta bere kontrako kanporatze agindua dela-eta, ihes eginda dago. Senideek ez dakite non dagoen ezta zein egoeratan dagoen ere, hortaz, oso kezkatuta daude.

Santa Teresa Ikastola inauguratuko dute bihar, zapatua

UBANE MADERA

Musakolako Santa Teresa ikastola inauguratuko dute bihar. Ikasturte bat eman dute hango ikasleek ikastolatik kanpo, hura berritzeko. Apirila amaieran bukatu zituzten lanok eta bihar goizean izango da ospakizun ekitaldia.

10:30ean hasiko dira ekitaldiak. Ikastolako ateak irekiko dituzte orduan, gura duenak ikastola ezagutzeko. Trikitilariak ere izango dira eta baita, ikasle ohien argazki erakusketa bat ikusteko ere. Gero, 11:30ean, ekitaldi ofiziala izango da. Alkateak ikastola inauguratuko du, Agurra dantzatuko dute eta bertsoak ere kantatuko dituzte. 12:00etan, berriz, Goloka Park taldearekin kale animazioa izango da eta, bukatzeko, 13:30ean, luntxa emango dute. Bestalde, Ikastolako Eukene Mondragon irakasleak adierazi digunez, Aitor Lopez Rekarte futbolaria ikastolako ikasle ohia da eta inaugurazio ekitaldira gonbidatzen saiatuko dira.

HANDITU, BERRITU ETA EGOKITU

Eraikinaren lehengo itxura gordeta, ikastola handitu, berri-



Eraikinaren lehengo itxura gordeta, ikastola handitzeko lanak egin dituzte.

eta egokitu egin dute, hala adierazi dute. Haur eta Lehen Hezkuntza ematen dute Ikastola horretan, hau da, bi urtetik 12 urtera arteko umeak daude; guztira, 115 bat, eta 10 irakasle. Eta, Eukene Mondragonek gaineratu digunez, aurrera begira, auzoan ume gehiago biziko direla uste dute, izan ere, batetik etxebizitza berriak egiten ari dira; eta bestetik, geroago eta jende gazte gehiago ari da Musakolan biga-

ren eskuko etxebizitzak erosten eta, ondorioz, auzoa pitzen ari da.

Berrikuntza lanekin, besteak beste, ikastolari egitura moderna ematen saiatu dira. Adibidez, kolore biziak eta leiho zabalak ipini dituzte. Eta, ohiko ikasgelez gain, liburutegia, sukaldea eta psikomotritate gelak dituzte. Gainera, informatika gelak ipintzeko asmoa ere badute. Santa Teresa Ikastola Arizmendiren barruan dago.



60 bat lagun, Jon Agirre gogoratzeko

Joan den domekan, Arrasateko, Aretxabaletako eta Aramaio hirurogei bat lagun elkartu ziren Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko mendi ibilaldian parte hartzeko. Nor bere herritik irten zen eta Muru mendia puntan elkartu ziren guztiak. Parte hartzaileek adierazitakoaren arabera, ordubete inguruz izan ziren Muruko gainean; denbora horretan txalaparta doinuak entzuteko aukera izan zuten eta Jon Agirre aramaioarrak kartzelan 21 urte bete dituela gogorarazten duen pintada bat ere egin zuten. /U.M.

ELKARRIZKETA

IÑAKI AGIRIANO/MEDIKUA

“Laguntzera joenez gero, edozein hartuko dute ondo nikaraguarrek”

UBANE MADERA


Iñaki Agiriano medikua da eta Arrasateko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan egiten du lan; ekainean, baina, oporrak hartu eta Nikaraguara joko du. Besteak beste, El Rosario auzoko errolda egiteko asmoa du, eta sendagaiak eramateko.

Nikaraguara zoazen hirugarren aldia da...

Bai. Oraingoan asmoa da Granadako probintziako El Rosario auzora joatea. Nikaraguaren hegoaldean dago hori, Nikaragua lakua- ren parean. Laz ezagutu genuen hura emazteak eta biok eta nahiko pobrezia ikusi genuen; 1.200 biztanleetatik gehienak langabezian daude, medikurik ez dute, sendagai gutxi eta garestiak...pentsatu genuen zerbait egitea, eta orain horretara noa. Hain zuzen ere, lau bazkideren artean sortutako AMSOGRA Gobernu Kanpoko Erakundearen izenean noa.

Honez gero izango duzu lagun hant? Zelakoak dira?

Lauzabost lagun, bai. Harreman ona dugu eta jendea oso fina da, beti laguntzeko gertu. Desberdinak dira, beste paraje eta egoera baten bizi dira...baina jendea oso jatorra eta oso lasaia da eta nire lagunak oso inplikaturik daude hango egoeran. Baina, horrekin batera, oso mugaturik daude. Ez dute mediorik. Komuna antzeko bat dute antolatuta: eurek egin dute eskolako etxea, umeendako jangela, medikuaren kontsulta...baina gero ez dute mediorik jangela ondo erabiltzeko, medikua astean pare bat bideredo pasatzen da eta sendagaiak eskasak eta oso garestiak dira.



UBANE MADERA

Orain, hilabetez mediku bat izango dute...

Bai. Niretako ere zeharo desberdina izango da. Hango kultura, osasuna desberdina da, hortaz.... Ni noa dakidana egitera eta bide batez, hitzaldiak emango ditut: amen hezkuntza, garbitasuna, nutrizioa...horrelakoak erakusteko.

Zela hartzen dute Arrasateko

mediku bat?

Eurei laguntzera joenez gero edozein hartuko dute ondo; baina, era berean, ezin zaie dena eman, eurei ere eskatu egin behar zaie. Horrela, euren proiektuak egiten dituzte eta proiektu horiekin laguntasuna eskatu. Hortaz, ni horren nondik norakoak erakustera noa eta, bide batez, laguntzera.

Kultura etxe berria, Garagartzako lanak eta uren azterketa hizpide

Oraingo astean, ohiko Gobernu Batzordeaz gain, maiatzari dago- kion osoko bilkura izan da Udalean. Mozioak ziren nagusi gaitzerrendan, baina, horiekin batera, bestelako gaiak ere landu zituzten zinegotziek. Horrela, batetik, kultura etxe berria egiteko lanak adjudikatzeko proposamena zuten mahai gainean. Baita, Garagartzako Fagor lantegiaren kanpoan egin gura duten biribilaren proiektua behin betiko onartzeko proposamena ere. Azken puntu hori onartuz gero, lanok egiteko behar dituzten lurrak eskuratzeko desjabetze espedienteak hastea ere erabakitzeko zuten. Edozelan ere, albis-

te hau idaztean bilera egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zer erabaki duten zinegotziek.

GOBERNU BATZORDEA

Edozelan ere, astero moduan, Gobernu Batzordea egin dute zinegotziek eta teknikariek. Besteak beste, Udalagoikoan gasa eta saneamendu sarea ipintzeko proiektua onartu zuten. Hain zuzen ere, 170.322'38 euroko aurrekontuari onespina eman zioten. Excavaciones Arrasate enpresak egingo ditu lanok eta asko jota zazpi hilabeteko epea izango du guztia bukatzeko.

Bestalde, Ingurumen Sailak hondakin-uren isurketen anali-

tikak egiteko proposamena ere egin zuen eta Gobernu Batzordeak onartu egin zuen. Kontua da, berez, isurketen eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela. Baina, zerbait gertatuz gero, mota horretako azterketak egiteko aukera izatea gura zuen Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak. Horrela, proposatu zuten 1.500 euro onartzea aurrerantzean isurketen laginak hartu eta analizatu ahal izateko.

Mota horretako analitikek ibaiekin zein ur-estolderiaren sarera egiten diren isurketak aztertzen dituzte; hain zuzen ere, uretan dauden olioak, koipeak eta metalak, besteak beste.

LABUR

‘Hitzarmengintza: entitateak euskalduntzeko metodologia’ liburua argitaratuko dute

Hitzarmengintza: entitateak euskalduntzeko metodologia izeneko liburua argitaratzeko hitzarmena sinatzea onartu du Arrasateko Udalak. Euskara Elkarte eta Herri Komunikabideen Topaguneak argitaratuko du liburua.

Arrasaten Euskararen Hitzarmena sinatu zuten zenbait hitzarmen- kideek euskararen normalizazio plana ipini zuten abian euren entitateetan. Hain zuzen ere, gure herrian 60 bat dira normalizazio planen bat lantzen ari diren erakundeak (tartean, Euskararen Hitzarmena sinatu ez zutenak ere badaude). Hain zuzen ere, normalizazio plana abian ipintzeko metodologia jakin bat asmatu dute zenbait teknikariek; tartean, Aintzane Lasa dago, Arrasateko Udaleko teknikaria. Berak eta beste bi lagunek egin dute lanik sakonena. Eta, hain justu, metodologia horren nondik norako garrantzitsuenak batu eta liburu bat ateratzea erabaki dute orain.

Ingurumenaren Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu Arrasateko Udalak

Datorren ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak erakusketak eta hitzaldi bana antolatu ditu datorren asterako. Amalurraren defentsan da erakusketaren izenburua. Lurra taldeak egindakoa da eta ekainaren 3tik 8ra izango da Monterrongo erakusketak aretoan. Ikustera joateko ordutegia 18:00etatik 20:00etara artekoa izango da, asteleheneetik zapatara. Lurraren egoera aztertuko dute erakusketak horretan, bereziki, gaur egun dituen arazo nagusiak zehaztzuk diren. Horretarako, gaika sailkatutako zazpi atal aztertuko dituzte: historia, kultura, ekologia, osasuna, kontsumoa, elkartasuna eta lehen sektorea. Lurra taldearen barruan, Eguzki, LEIA edo Zornotza Bizirik moduko elkarteak daude; baita, UAGA edo EHNE-Gipuzkoa sindikatuak ere; Euskal Kontsumitzaileen Elkarteak eta Mugarik Gabe eta Askapena elkarteak, adibidez.

Eta, ekainaren 5ean, astelehenean, Zergatik ingurumenaren eguna? izeneko hitzaldia egingo du Alberto Frias abokatuak. Arrasateko zazpietan hasiko da, Monterrongo hitzaldi aretoan.



Laurogei ume baino gehiago danborradan

Kostata, baina SUDCeok lortu dute herriko zenbait ume batzea, eta, datorren 15ean, lau konpainia irtengo dira Umeen Danborradan: barrileroen bi, eskoziarrak eta danborrariak. 80 ume baino gehiago, guztira. Hilabete hasieratik ari dira umeak entsegu lanetan, betiko kantuak ondo ikasteko. Eta, esan bezala, ekainaren 15ean, zapatuan irtengo dira herria danbor hotsekin betetzera. Arratsaldean izango da hori, 19:00etatik aurrera, Nafarroa etorbideetik; jakina, karroza eta guzti; argazkian ikusten duzuen horixe, hain zuzen ere. /UM



ZAPATUAN EZKONDUKO DEN BIKOTEARENDAKO MEZUA


Julen Arkauz eta Aitana Agirre bihar, zapatua, ezkonduko dira. Elizkizuna Arantzazuko Santutegian izango da, eta elizkizunaren ondoren, bazkaltzera joango dira, baina ez oso urruti, Zelai Zabal jatetxean izango dute-eta bazkaria. Seguruenik, familiakideek eta lagunek ehunka gauza izango dituzte bikoteari esateko, baina badago mezu berezi bat: zuen iloba Izarok zorionik beroenak eman nahi dizkizue.



ZORTZIGARREN MAILARA ARTE BATERA

Koadrila horrek San Viatorren ikasi zuen zortzigarren mailara arte, eta urtero-urtero afaria egiten dute. Azken ikasturtea 1988an izan zuten, eta argazki hau orain dela gutxi egindako afariakoa da. Horrelako afariak derrigor egin beharre-

koak izaten dira, azken baten, iraganeko lagunekin eta ikaskideekin elkartzea polita izaten da-eta. Argi dago aurten sekulako parranda egin dutela, eta datorren urterako ere zerbait gorde dutela. Ez galdu ohitura hori!



ZORIONAK, PAKO ETA ELENA!

Pako eta Elena bihar, zapatua, ezkonduko dira. Elizkizuna Parrokian izango da, eta elizkizunaren ostean, Marisan bazkalduko dute. Pakok ezkondu aurretiko agur-afaria Bilbon egin zuen, eta Elenak Santanderren. Ezkonbidaia ere ez da nolanhikoa izango. Bi astez izango dira kanpoan. Lehenengo astean Ipar Amerikan izango dira: Las Vegas, San Frantzisko... Bigarren astean, berriz, Karibera joango dira. Zorionak, bikote!



ONDO ZAINDUTAKO KATUA

Joan den astean, Umezaintzako umeek opari berezi bat izan zuten. Umezaintza inguruan katakume bat agertu zen, eta al baitariarengana eraman eta gero, katua umeen artean izan da oraingo egunotan. Asteburua ume

baten etxean pasatu du, eta astelehenean, berriz, eskolan egon zen katua. Aspertzeko astirik ez dauka katua, eta neska-mutikoak oso pozik daude harekin. Baina... nork eramango du katua etxera?



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

ELKARRIZKETA

JOXE ANTONIO ZEZIAGA, PELLO GONZÁLEZ ETA IMANOL EXPOSITO/MENDIZALEAK

"Zapatuan, Besaide MEko berrehun lagun baino gehiago elkartuko gara"

XABIER URZELAI

Oraingo zapaturako, Besaide Mendi Elkartek txango berezia antolatu du Toloño mendira. Besaide Mendi Elkarteko 200 lagun baino gehiago elkartuko dira bihar. Txango hori antolatzeko hiru lagun horiek ibili dira, eta sekulako lana ei da.

Zer dela eta antolatu duzue zapatuko irteera?

Jose Antonio: Irteera hori Besaide Mendi Elkarteko bazkide batzuei bururatu zitzaigun, eta gauza polita izango zela bage-nekienez, aurrera jarraitzea erabaki genuen.

Zergatik Toloño?

Pello: Aspaldi, Arrasateko mendi taldea Juventud Deportiva Mondragón taldearen barruan zegoen, baina garai hartan, futbola eta pilota ziren nagusi. Lagun talde batek Toloñoa egin zuen txangoa, eta mendi tontorrean, hamarretakoa egiten ari zirela, talde propio bat egiteko erabakia hartu zuten. Horregatik esaten da Besaide Mendi Elkartea Toloño sortu zela, eta horregatik joango gara gu bihar Toloñoa.

Azal diezaguzue zer egingo duzuen bihar.


Jose Antonio: Autobusa goizeko zortzietan irtengo da, eta goizeko bederatzietan erdiak aldera Ribasera iritsiko gara. Handik Toloñoarako bidea hartuko dugu, eta goizeko hamaiketara, Toloño tontorrean, hamaiketako egingo dugu. Toloñotik Bastidara jaitsiko gara, eta txikiteoa egin eta gero, arratsaldeko ordu bi eta erdietan bazkaltzera joango gara. Itzulerako autobusa, berriz, arratsaldeko zazpitan izango dugu.

Jende asko animatu ei da.

Pello: Bai, guztira, berrehun eta hogeita bi lagun elkartuko gara. 40 urtetik gorako bazkide guztiei gutunak bidali dizkiegu etxera, baina txangoaren gainean informatzeko bide onena eta azkarrena txikiteoa izan da. Bidaian Besaide Elkarteko berehala izango dira nagusi, baina gazteendako lekua ere bada, jakina.

Mendi Astea amaitu da dagoeneko. Zer balorazio egiten duzue?

Imanol: Oso balorazio positiboa egiten dugu; izan ere, jende



XABIER URZELAI

"Ehunka gutun bidali ditugu, baina bidaiaren berri izateko txikiteoa izan da bide onena"

de dezente animatu da ekintzetan parte hartzera. Astean barrena hitzaldiek arrakasta handia izan dute eta asteburuan egin diren mendi irteeretara ere jende dezente joan da, nahiz eta eguraldiak ez duen askorik lagundu.

Zein hitzaldik izan du arrakasta handiena?

Imanol: Cecilia Buil-en hitzaldia, nire ustez. Normalean, Men-

"Mendi Astearen balorazio positiboa egiten dugu. Jende dezente izan da hitzaldietan"

di Asteko azken egunetan izaten diren hitzaldiek izaten dute arrakasta handien.

Gaur egun gazteek badakate mendira joateko zaletasunik?

Imanol: Bai. Gertatzen dena da orain lehen baino gauza gehiago egin daitezkeela mendian. Lehen, oinez ibiltzera joaten ginen. Orain, eskalada, eskia...

HYUNDAI KOPA

Ander Corcuera arrasatearra 16. izan zen lehen lasterketan eta 6. bigarrean

Ander Corcuera Hyundai Kopako hirugarren eta laugarren lasterketak jokatu zituen joan den asteburuan. Arrasatearra ez zen oso gustura ibili entrenamenduetan, eta lehenengo lasterketan hogeita bosgarren postuan irten zen. Lasterketan zehar bederatzietan auri aurre hartu eta hamaseigarren iritsi zen helmugara.

Bigarren lasterketan hamaseigarren postuan irten zen, eta orduan ere abilezia handiz hamar auri aurre hartu zien, eta seigarren postuan iritsi zen helmugara. Oraingoan Anderrek ez du podiumera igotzerik izan, baina pilotu ona dela erakutsi du, bi lasterketetan 19 auri aurre hartu zien-eta.


ATLETISMOA

Pertika-jauzian Lander Errastik urrea lortu zuen Eskola Arteko Euskadiko Txapelketan

Joan den asteburuan, Eskola Arteko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Mendizorroztan, eta Lander Errasti arrasatearra urrea eskuratu zuen pertika-jauzian. Landerrek bi metro eta erdiko jauzia egin zuen. Markel Blancok, bestalde, brontzea eskuratu zuen 3.000 metroko lasterketan. Txandakako lasterketan ere mondragotarrek brontzea eskuratu zuten, eta gainerako atletek ere lan polita egin zuten.

Azkenik, taldeka, San Viatorrek hirugarren postua eskuratu zuen, 33 punturekin. San Viatorren aurretik Ordiziako Oianguren eta Bilboko Urdaneta eskolak geratu ziren.

FOTOKIROLA

**'Nitro' Abos-eko txapelketan onena**

Joan den asteburuan, Txakur Heziketako Txapelketa jokatu zen Abos-en (Frantzia), Club de Education d' Abosek antolatuta. Arrasatek izan zuen ordezkariarik, Mon-Dragon Miranous taldeko Jon Iñaki Lasa han izan zen-eta Nitro txakurrarekin. Guztira, hamazazpi txakur izan ziren, eta maila gorenera bost txakur iritsi ziren. Azken txanpan Jon Iñakik eta Nitro-k txapelketa eskuratu zuten. Horrela, Nitro-k CACT bat eskuratu du, eta Frantziako txapelketa izateko hiru behar dira. (X.U.)

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

FUTBOLA

Ohorezko gazte mailako taldeak laugarren amaitu du denboraldia

Joan den asteburuan, Arrasateko taldeak 1-2 galdu zuen Kostkas taldearen kontra

XABIER URZELAI

Ohorezko gazte mailako Mondrak galdu egin zuen joan den asteko partidua, eta sailkapenean hirugarren postutik laugarrenera pasatu da. Josu Zubiaren mutilek lan polita egin dute denboraldian zehar, eta lastima izan da azkeneko partidua galdu eta ligan hirugarren ez amaitzea.

Ez zuen ezer jokoan, baina, hala ere, Kostkas taldea gogotsu zelairatu zen, eta lehenengo zatian aurre hartu zuten. Arrasateko atezainak huts egin zuen lehenengo golean, baina hurrengo jokaldietan bikain ibili zen, geldiketa onak egin zituen.

Bigarren zatian gauzak asko aldatu ziren. Arrasatek nagusitasuna erakutsi zuen, baina ez zen gauza izan partidua irabazteko. Hiru puntuak Kostkas taldeak eraman zituen, eta Mondra sailkapeneko hirugarren postutik laugarrenera pasatu da. Horrenbestez, ohorezko mailako taldeak postu horretan amaitu du denboraldia, eta datorren urtean ere



ARTXIBOIA

Gazte mailako bigarren taldea, Zumaikoren kontra jokaturako partiduan

ohorezko mailan jokatzeko aukera izango du.

GAINERAKO PARTIDUETAN GOL ASKO

Joan den aste bukaeran Arrasateko futbol taldeek jokaturako partiduetan gol ugari izan ziren. Hain zuzen ere, kadeteek Tolosan jokatu zuten, eta Juan Luis

Arkauzen mutilek ez zuten oso egun ona eduki; izan ere, 4-0 galduta bueltatu ziren Arrasatera. Bigarren mailako gazteek, bestalde, partidua erraza jokatu zuten Texas Lasartearra taldearen kontra; etxekoek 5-0 irabazi zioten ganora txikiarekin etorri zen Lasarte taldeari.

KIROL JAIA

Arrasate Kirol Proiektuak ikasturteko azken jaia egin zuen

Ikasturtearen amaiera gertu dagoenez, AKPk ere amaitu du aurtengo lana

X.U.

Arrasate Kirol Proiektuak ikasturteko azken jaia egin zuen zapatuan. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina neska-mutiko mordo animatu zen bizikleta hartu eta Aramaiora joateko. Hortaz, AKPren aurtengo kirol eskaintza behar bezala amaitu da; kirola eginez, jakina.

Arrasate Kirol Proiektuak amaitu du aurtengo ikasturteko egin-beharra, baina amaitu ere ondo amaitu dute; izan ere, joan den zapatuan, jai handia antolatu zuten. Goizeko hamarretan, erdiko plazan gaztetxo asko elkartu ziren, eta urtean barrena begirale izan direnen zaindaritzapean Aramaiorako bidea hartu zuten, bizikletaz. Aramaiora iritsi, eta atsedean hartu eta hamaiketako

egin eta gero, Arrasaterako itzuliko bidea hartu zuten. Arrasatera iritsitakoan, erdiko plazan bildu ziren guztiak, eguerdiko hamaiketaren sari banaketa egin zuten eta.

ESKAINITZA ZABALA

Arrasate Kirol Proiektuak eskaintza zabala egin du aurtun. Guztira, hamaika kirol izan dira egiteko, eta neska-mutiko askok hartu dute parte.

San Viator Guneko Arrasate Kirol Proiektuko koordinatzaile Jaione Lizardi pozik azaldu zen zapatuko ospakizunarekin. Egia esatearren, eguraldia ez zuten lagun izan, baina giro aparta izan zen eta neska-mutikoak pozik ibili ziren. Aramaiora egindako bizikleta martxan ez zen inolako arazorik izan, eta horren ondoren erdiko plazan egin zuten jai giro aparta izan zen.

Arrasateko Kirol Proiektuak uda partean ez du kirol eskaintzarik egingo; hortaz, ikasturtea behar bezala agurtu behar zen, jai nagusi batekin, hain zuzen ere. Eta halaxe egin zuten. Datorren urtean ere AKPk helburu berberekin egingo du lan: gazteek hainbat kirol ezagutu eta egitea.



NEREA MAKAZAGA

Aramaiora atsedean hartu egin eta berriro ere Arrasatera bueltatu ziren gazteak.

TRIATLOIA

Oraingo asteburuan, denboraldiko lehen triatloi proba jokatu da Sopelan

Antxintxika Debagoiena Taldeko atletak gertu daude triatloi denboraldiari ekiteko. Lehenengo proba oraingo asteburuan izango da, Sopelan, eta hurrengo proba ekainaren 8an izango da, Arrasaten. Debagoieneko triatloi taldeak laguntza handia beharko du triatloia antolatzeke. Ia dena gertu dago, baina lasterketa egunean jendearen laguntza beharko dute. Aurtun, ibilbideak aldatzeko batzuk izango ditu, korrika egingo duten tarteak, bereziki.

Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Gaizka - Ugutz	5	9	Eimon - Iker	5	9
Oscar - Igor	5	8	Ander - Mikel	5	7
Gaizka - Iraultza	6	8	Txori - Kaji	3	6
Xabi - Egoitz	4	7	Aritz - Aitor	4	5
Toribio - Pi	4	7	Ion - Igor	2	3
Pin - Bode	5	6	Pitu - Muxi	2	3
Xabi - Gufi	3	2	Oxel - Kuki	3	3

D Taldea			E Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Bolu - Egoitz	5	10	Iñigo - Isturiz	5	10
Kepa - Goiko	5	9	Iker - Iker	5	9
Zubi - Pon	5	8	Txopo - Frantxis	5	8
Txetxi - Albes	5	7	Jon - Andoni	4	5
Xabier - Oscar	6	6	Ander - Ibai	3	4
Edu - Igor	4	5	Lur - Skritx	3	3
Iraultz - Aitzib	3	5	Tximu - Zaka	3	3
Mikel - Unai	3	4			



Hurrengo partiduenak:

Ekainak 1, zapatua (Musakolako kiroldegian)

- Xabi - Gufi vs Gaizka Ugutz 10:00 Frontoi txikian
- Pin - Bode vs Toribio - Pi 10:30 Frontoi txikia
- Oskar - Igor vs Xabi - Egoitz 11:00 Frontoi handia
- Txori - Kaji vs Eimon - Iker 11:30 Frontoi txikia
- Ion - Igor vs Oxel - Kuki 12:00 Frontoi handia
- Ander - Mikel vs Pitu - Muxi 12:30 Frontoi txikia
- Bolu - Egoitz vs Zubi - Pon 10:00 Frontoi handia
- Mikel - Unai vs Kepa - Goiko 10:30 Frontoi handia
- Txetxi - Albes vs Edu - Igor 11:00 Frontoi handia
- Xabier - Oscar vs Iraultz - Aitzib 11:30 Frontoi handia
- Txopo - Frantx vs Ander - Ibai 12:00 Frontoi handia
- Jon - Andoni vs Iñigo - Isturiz 12:30 Frontoi handia
- Tximu - Zaka vs Lur - Skritx 13:00 Frontoi handia

ASTELEHENERAKO, PARTIDU GUZTIAK JOKATUTA

PARTIDU GUZTIAK JOKATU EZ DITUZTEN TALDEEK EZ DUTE JARRAITUKO

Erabaki zorrotza dela esango dute batzuek, baina ez dago beste biderik. Ekainaren 8an, final-laurdenak jokatu dira, eta ordurako lehenengo fasea amaituta egon behar da. Arauetan ere argi eta garbi azaltzen zen partiduenak zapatuetan jokatu beharko zirela. Partiduenak aurreratzeke aukera bat ere bazegoen, baina partiduen aurreratu egin beharrean talde askok ez dituzte jokatu, eta norgehiagoka asko atzeratu egin dira. Antolakuntzakoek oraingo astelehenerako emaitza guztiak behar dituzte; hortaz, partiduen atzeratuta dituztenok, oraingo asteburuan gogotik egin beharko duzue pilotan. Datorren astean, emaitza guztiak emaitzen berri emango dugu.



ARTXIBOA

Gaur eta bihar, garagardo onaz eta giro apartaz gozatzeko aukera egongo da Erdiko plazan jarriko duten karpan.

ERRUGBIA

Zapatuan jokatu da Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketa

Errugbi Txapelketarekin batera, Garagardoaren Jaia ere egingo dute Erdiko plazan

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan, Errugbia izango da protagonista herrian. Bihar, Errugbi Txapelketa jokatu dute Atxabalpen, baina giro ona ez da Garagartza aldean bakarrik egongo. Izan ere, errugbikoek astebururako karpa bat jarri dute Erdiko plazan, eta afaltzeko eta garagardo ona dastatzeko aukera egongo da.

Errugbia eta garagardoa batuko dira aurten ere Arrasaten. Arrasateko Errugbi Taldeak Nazioarteko Errugbi Txapelketako lau-

garren aldia antolatu du oraingo astebururako, eta ekitaldi horrekin batera Garagardoaren Jaia ere egingo dute. Gaur, arratsaldeko zazpietatik aurrera, garagardo onaz eta giro hobez gozatzeko aukera egongo da Erdiko plazan jarriko duten karpan. Eta bihar, berriz, errugbiaz gozatzeko aukera egongo da.

HAMABI TALDE IZANGO DIRA

Bihar jokatu den txapelketa arratsaldeko hiruretan hasiko da. Guztira, hamabi talde ibiliko dira nor baino nor: Bizkaiko ordezkarria Elorrioko taldea izango da; Gipuzkoako bost talde izan-

go dira (Eibar, Zarautz, Hernani, Bera-Bera eta Arrasate); eta talde horiez gain, Valladolideko Minotauro eta Madrilgo Majadahonda taldeak ere izango dira; eta Iparraldeko ordezkarriak ere izango dira (Baionako Aviron Bayonnais, Bordeleko Buc eta Donibane Lohizune, hain zuzen).

Gaur, Erdiko plazan jarriko den karpan afaltzeko aukera egongo da, eta zapatu gauean ere sekulako giroa egongo da. Ondo pasatzeko asmoa duen edonor dago gonbidatuta, eta gogora ezazue, ondo pasatu eta garagardo ona edatez gain, herriko taldeari laguntzea dela helburua.

AUKEAk gertu du dagoeneko aurtengo udako kirol kanpaina

XABIER URZELAI

Aurten ere uda partean kirola egiteko hainbat aukera egongo dira; izan ere, aurtengo udako kirol kanpaina gertu dago. Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 24an amaituko da, eta hilabete horretan hainbat kirol ekintza izango dira.

Ekainaren 27tik aurrera hainbat kirol egiteko aukera egongo da. Besteak beste, arku tiroketa, multikirola, natura jarduerak, patinajea, esku pilota, squasha, tenisa, aerobika eta eskalada egiteko aukera eskainiko du AUKEAK.

Hainbat berritasun ere izango dira. Helduek *spinning* eta *aquagym* egiteko aukera izango dute. *Spinning* aerobika bizikleta gainean egitea da, eta *aquagym*, izenak ondo dioen moduan, uretan egiten den gimnasia da. Erretiratuek, bestalde, multikirola egiteko aukera ere izango dute.

AUKEA Kirol Erakundeak abonatuiek beherapenak izango dituzte, baina horretarako abonatu txartela erakutsi beharko dute. Hamasei urtetik beherakoek Erantzukizun Zibileko Asegurua izango dute, eta izena eman eta gero diru hori ez dute bueltatu, baldin eta gutxieneko partai-

de kopurua ez bada betetzen. Kirol eskaintza gehienetan zortzi eta hamabi lagun bitarteko taldeak egingo dituzte. Aerobika eta gimnasia egiteko, gehienez, hogeita bost lagunendako lekua egongo da. Muskulazio gelara joan gura duenak, bestalde, ez du arazorik izango, 200 lagunendako lekua dago eta.

Azken baten, ekaina eta uztaila bitartean hainbat kirol egiteko aukera egongo da. Kirol eskaintza horien berri zabalagoa izan eta horien ordutegien berri jakin gura baduzue, Musakolako kiroldegira deitu ekainaren 14a baino lehen.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Rayo Aldeano - Chapime Dribling. 3-3
KJ Basati - Azkena You Know. 2-4

PARTIDUAK

EKAINAK 1, ZAPATUA. EPAILEAK

16:00: KJ Basati - Chapime Dribling Antolakun
17:00: Azkena YK - Rayo Aldeano Antolaku



ZALDIBARKO ANTOLATZALEAK

You Know taldea, finalerako sailkatu berri.



ZALDIBARKO ANTOLATZALEAK

Rayo Aldeano, finalerako sailkatu berri.

ZAPATUAN, FINAL NAGUSIA!

FINALERA IRITSI DIRENAK, MEREZIMENDU OSOAREKIN

Zapatuan, aurtengo Zaldibarko Txapelketako finala jokatu dute, eta Aramaioko Rayo Aldeano eta Arrasateko You Know taldeak izango dira nor baino nor. Bi taldeak merezimendu osoarekin iritsi dira finalera, eta final ikusgarria izango da, segurua asko. Aramaiokoak Zaldibarko Txapelketako txapelidun ohiak dira, eta bigarren aldiz iritsi dira finalera, hortaz, ez da kasualitatea. You Know taldeak, berriz, Zaldibarko Txapelketako futbol onena egiten duela argi eta garbi esan daiteke. Zapatuan, 17:00etan.

HIRUGARREN ETA LAUGARREN POSTUAK ERE JOKOAN

Finala arratsaldeko bostetan jokatu dute, baina ordubete lehenago, arratsaldeko laurretatik aurrera, Dribling eta Koka Junior taldeek hirugarren eta laugarren postuengatik borrokatuko dute. Joan den urtean, Dribling taldeak Rayo Aldeanoren kontra galdu zuen finala, eta aurten ere aramaioarrak nagusitu dira. Koka Junior Basati taldeak, berriz, txapelketa biribila egin du. Ezin esan joko ona egin dutenik, baina talde gutxi borrokatzen dute Koka Juniors taldekoek beste, eta Zaldibarren hori behar da.

KIROLAGENDA

BESAIDE MENDI ELKARTEKO MENDI IRTEERA
Toloñora
Zapatuan. 08:00. Autobus geltokian.
ERRUGBIA
Nazioarteko Zazpinako Txapelketa
Seniorrak. Zapatuan. 15:00etatik 19:00etara.
Atxabalpen.

HYUNDAI KOPA
Ander Corcuera
Lehen lasterketa: 16. postua.
Bigarren lasterketa: 6. postua.

FUTBOLA
Ohor. gaz.: Mondra - Kostikas. 1-2
Big. gazteak: Arrasate - T.Lasatearra. 5-0
Kadeteak: Tolosa - Arrasate. 4-0

MUSIKA EMANALDIA

Sen taldeak azken diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Onddo taldearekin batera

Sen taldeak Metak diskoetxearekin kaleratu du bigarren diskoa

IKER BARANDIARAN

Ekainaren 1ean, zapatuan, Sen taldeak bigarren diskoa, *Gaizki esanak...*, aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean. 2000n sortu zenetik hona, ezagun bilakatu da Sen taldea. Bigarren diskoa Onddo taldearekin batera aurkeztuko dute Arrasateko gaztetxean.

Ekainaren 1ean, zapatuan, Donostialdeko Sen taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean. *Gaizki esanak...* da diskoaren izenburua eta Metak diskoetxearekin ateratu dute. Taldekideen ustez, disko hori da guztien artean egin dute lehenengoa. Lehenengo diskoak abestiak Haritz Harregi gitarristak egin zituen, eta Latzen taldean ibilitako Aitor Uriarterekin elkarrean, Sen taldea sortzea erabaki zuten. Gero, 2000. urteko udan, Oihuka diskoetxearekin diskoa grabatzeko asmotan, Aiheko Zubimendi batu zitzaion. Horrela, Sen izeneko lana grabatu zuten


Andoaingo Garate estudioan, eta Haritz Harregik berak egin zituen soinu teknikari eta ekoizle lanak.

Sen taldekoek pop-rocka egin dute, freskotasunarekin eta ñabardura askorekin. Doinu gozoak eta gazi-gozoak ere uzartu dituzte, eta kasu batzuetan euren abestiak *post-rock* estiloaren giroetatik hurbil daude.

Are gehiago, euren lehenengo diskoak hitz batzuk Jose Antonio Artzerenak dira, beste batzuk Jon Garmendia *Txuria*-renak eta gainerakoak Aitor Uriarterenak. Eta egia esatearren, oso istorio bitxiak kontatzen dituzte, ironia eta positibotasuna uztartuta.

Gaizki esanak... lana, ordea, talde-lana izan da. Izan ere, abesti gehienak Haritz Harregik berak egin baditu ere, taldekide guztien artean egin dituzte konponketak eta azken ukituak. Horrez gainera, hitzak Aitor Uriarterek berak, Joxe Antonio Artzek, Juan Luis Zabalak eta Jon Garmendia *Txuria*-k idatzi dituzte.

Azken diskoa Onddo taldearekin batera aurkeztuko dute.



Sen taldeak euskal pop-rockaren bideak zabaldu eta ñabardura gehiago sartu dizkio.

Euskararik
freskoena
lortuko duzu



2002 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINITZA

MINTZAMENA lantzeko ikastaroa: uztailaren 1etik 19ra.
Egunean 3 ordu (09:00etatik 12:00etara) astelehenetik ostiralera.

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa: bi zatitan.

1-uztailaren 1etik 24ra.

Egunean 4 ordu (09:00etatik 13:00era) astelehenetik ostiralera.

2-irailaren 2tik 27ra.

Egunean 3 ordu (09:00etatik 12:00etara) astelehenetik ostiralera.

MATRIKULATZEKO EPEA

Ekainaren 3tik 13ra.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 10:00etatik 13:00era.

Arratsaldez: 15:00etatik 18:00etara.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazuri plaza, 2 . 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

ESKOLA ARTEKO XV. ABESBATZEN TOPAKETA

XV. urteurrena ospatzeko, Luis Dorao abesbatza eta omenaldiak izango dituzte

IKER BARANDIARAN

Arizmendi ikastolak Eskola Arteko Abesbatzen XV. topaketak antolatu ditu. Topaketak bihar bertan egingo dituzte Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera, eta Gasteizko Luis Dorao Unamuno Abesbatza gonbidatu dute.

Arizmendi ikastolak Eskola arteko Abesbatzen XV. topaketak antolatu ditu. Bihar bertan egingo dituzte topaketak Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera.

Abesbatzen arteko txapelketa 1988. urtean jaio zen. San Frantzisko Xabier Ikastolako musika irakasle zen Gurutze Uribarrenek herriak betidanik izan duen abesbatzarekiko zaletasuna eta grina kontuan hartuta, ikasleez osatutako abesbatzen agerraldi publiko egitea pentsatu zuen.

Abesbatzen lehenengo txapelketa arrakastatsua izan zen, eta San Frantzisko Xabier ikastolakoek topaketarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Geroago, ordea, Arizmendi Ikastolak hartu zuen abesbatzen topaketa antolatzeako ardura, eta poliki-poliki txapelketa izatetik topaketa

izatera pasatu da.

Aurtengo aldia, gainera, berezia izango da, abesbatzen topaketak hamabosgarren urtemuga da-eta. Arrazoi horregatik, topaketa baino gehiago, jaialdi bihurtu dute eta Gasteizko Luis Dorao Unamuno Abesbatza gonbidatu dute. Luis Dorao Unamuno Abesbatza horretako partaideek kontzertu didaktikoa emango dute. Eta horren ondoren, Arrasateko abesbatzetan garrantzi handia izan duten hainbat irakasle eta elkarte omenduko dituzte.

TOPAKETA BAINO GEHIAGO, JAIALDIA

Ekitaldirako sarrera doakoa da, baina, hala ere, Arizmendi Ikastolako haur eta guraso guztiei gonbidapenak banatu dizkiete. Dena dela, Amaia Udal Antzokia bete arte sartu ahal izango da jendea. Aurreko urteetako abesbatzen topaketan Amaia Udal Antzokia lepo bete izan da, eta ziurrenik, aurtengoa ere hala egongo da Arrasateko antzokia.

Debagoieneko ikastoletako neska-mutikoak kantuan trebatuta daude eta gustura ikusi eta entzungo dute. Luis Dorao Unamuno Abesbatzak eskainiko duen kontzertu didaktikoa.



KULTURAPILULAK

Euskal musika tresnen gaineko ekitaldi didaktikoa

Gaur, 22:00etan, Amaia Udal Antzokiko hall-ean, Euskal Herriko musika tresnen gaineko erakusketa zabalduko dute, Kultur Errotak antolatuta. Gero, 22:30etik aurrera, Juan Mari Beltran Argiñan Euskal Herriko musika tresnen gaineko ekitaldi didaktikoa egingo du.

Juan Mari Beltran donostiarra da jaiotzez eta musikaria eta musika irakaslea izateaz gain, herri musikaren gaineko bilduma erraldoia pilatuz joan da. Horrez gain, egun, Herri Musikaren gaineko dokumentazio zentroa antolatzen ari da.

Instrumentu askotxo ikusgai egongo dira Amaia Antzokiko hall-ean bertan, eta gero, zelanbait, musika emanaldia eta berbaldia uztartuko dute Juan Mari Beltranek eta laguntzaile izango dituen Amaia Intxaurburu eta Felipe Ugarte musikariek.

Besteak beste, txalaparta, tobera, zarrabetea, txirula, ttun-tturra, tronpa, dultzaina, txirularru-bota, txistua, danbolina, alboka eta beste instrumentu asko entzuteko aukera izango da.

**Maiatzeko zozketa, gaur egubakoitza,
Sebero Altube plazan arratsaldeko 6.30etatik aurrera
Zatoz eta parte hartu ezazu!**



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

Parte hartu

600 €

hileroko zozketan.
(Maiatzetik uztaiera)

Sari-txartelak Ibai-arte
komertzioan aurkituko dituzue.



E, TXO!

GUREGAIK/ TXATXILIPURDIKO UDALEKUAK

Udalekuetan beste aukera bat izango dute 6 eta 10 urte artekoak

IKER BARANDIARAN

Aurtengo Txatxilipurdiko udalekuetan beste aukera bat izango dute sei eta hamar urte bitarteko umeek. Guraso talde batek eskatuta, egun erdirako apuntatzeko aukera izango dute interesatuek.

Aurtengo Txatxilipurdiko udalekuek beste aukera bat eskaintzen dute. Guraso talde batek eskatuta, egun osorako eskaintzaz gain, sei eta hamar urte bitarteko umeak udalekuetan egun erdiz egon ahal izango dira.

HAMARRETATIK ORDU BATERA

Udalekuetako eskaintza hori goizeko hamarretatik eguerdiko ordu batera izango da. Hain zuzen

Gurasoek seme-alabekin denbora gehiago egoteko, egun erdiko txanda eskatu zuten

ere, lehenengo txanda uztaillaren 1etik 12ra eta bigarren txanda, berriz, uztaillaren 15etik 24ra. Bi txanda horiek 32 euro kostatuko dira. Uztaillaren 1etik 24ra gura izanez gero, 55 euro ordaindu beharko dituzte umeek. Era berean, bi anai-arreba matrikulatzeagatik edo ludotekako zein AED-



ARTXIBOA

Txatxilipurdiko udalekuek oso harrera ona dute herrian.

ko bazkide izateagatik ere beherapenak egingo dituzte Txatxilipurdikoek.

Orohar, Txatxilipurdiko udalekuetan izena emateko epea ekainaren 18an bukatuko da.

FILM LABURREN EMANALDIA EGIN ZUTEN GAZTETXEAN

Joan den zapatuan, film laburren emanaldia egin zuten gaztetxean, AGA-KOK eta Eskuak Burura taldeak antolatuta. Amaia Udal Antzokian estreinatutako antzezlanak kalte egin zien arren, berrogei bat lagun batu ziren filmak ikusteko asmoz. Andoainen egindako *Ekintzen ispilu gordina*, Tolosako *Capicci* eta beste lau film eman zituzten. Umorea, hausnarketa eta beste hainbat gai jorratu zituzten. Halako emanaldi gehiago antolatzeko asmoa erakutsi zuten.

NARKOTRAFIKOAREN GAINEKO BERBALDIA

Atzo, Pepe Rei kazetariak narkotrafikoaren gaineko berbaldia egin zuen gaztetxean. Testu hau idazteko orduan, berbaldia egin barik zegoen; edozelan ere, berbaldira jende dezente hurreratu ko zelakoan gaude.

LEONARDO DA VINCI DIRULAGUNTZAK

Euskal Enpresaburuen Konfederakundeak (Confesbask) Europako edozein unibertsitatetan azken mailetan dabiltzan ikasleek edo titulatu berriek atzerriko enpresetan praktikak egiteko dirulaguntzak bultzatu ditu.

Derrigorrezkoa izango da eskaera egin gura duen ikaslea Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialki bizi izatea, aurretik lan esperientziarik ez izatea eta 35 urte baino gazteagoa izatea.

Dirulaguntza horren barruan daude egonaldi gastuak (350-500 euro hilabeteko), praktikak egiten diren lekuraino joan eta etorria egiteko txartela (gehienez jota, 350 euro) eta, behar izanez gero, hizkuntzako laguntza, (250 euro, asko jota).

LOTSABARIK/ Deiane Lage

“Izozki saltzaile izan gura nuen”

IKER BARANDIARAN

Deianek saskibaloian jokatzeko du, ikasten dabil eta Txatxilipurdiko taldean ere badabil. Hala ere, gure erregua entzun eta gero, *Lotsabarik* elkarrizketarako bere burua eskaintzeko prest agertu zen Deiane.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Izozkiak asko gustatzen zitzaizkidan, eta horregatik izozki denda baten lan egin gura nuen. Orain, berriz, mediku izan gura nuke.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkontuta egotea espero dut,

eta bi seme-alabarekin. Arrasate gustatzen zait, baina ez dakit non bizi izango naizen. Hiri handi baten, behintzat, ez.

• Zein da, zure ustez, adin ideiala?

Hogei urte edukitzea ondo egongo litzateke. Etxetik kanpo, ikasten...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Une honetan, behintzat, ikasketei; bestela, lagunekin eta familiarekin egotea ere gustuko dut.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Daukadan itxurak; izan ere, ondo jantzita joatea gustatzen zait. Eta ikasketek ere arduratzen naute.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Nitaz zer pentsatuko ote duten.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Eskuzabala naizela diote, laguntzen ahalegintzen naiz; baina urduri samarra eta apur bat alferra naiz.

• Arrasaten ligatzen da?


Nik askorik ez, baina bai, ligatzen da.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ahoa, haginak eta ezpaina.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenengo, kanpoko itxurari begiratzen diot, gero, hura zelakoa den aztertzen dut.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 2. maila • ZALETASUNAK: Saskibaloian jokatzeko eta lagunekin egotea
LIBURU BAT: 'Nikolas Txiki' • FILM BAT: 'Gladiator' • MUSIKA TALDEA: Lenny Kravitz • KIROL TALDEA: TAU Baskonia eta Athletic

**CLUB
IYOLA**
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

**Monte
taberna**
Maalako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**HIES
BERRI**
Tel.: 943 79 26 99

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BEHEKO KONTZESIONARIOTIK

Rafa Etxabe

MUGARRI KONTZESIONARIOKUE

XABIER URZELAI

Gustetan jakona saltzen dau Rafak: kotxiek. Lanagatik izengo ez balitz, automobilen eta lasterketen gaiñien egun osue berbetan ibiltzeko kapaz da. 23 urte daroie lanbide horretan, baiñe Fagorren lan egindakue be bada. Automobil lasterketak ahaztu barik, mendixe eta ziklismue dittu gogoko. Saltzeko abille da; izen be, automobille edukitze be, ixte Focus batekin urten dot elkarrizketatik.

Amets bat?

Oin baino lasaixago bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Barrero be kartzelara juetie.

Egin dozun azken biajie?

Lana dala-eta biaje asko egitten dot. 1998xen, Bosnian egon nitzen.

Txartel horixe, zeñei?

PSOeri.

Eta gorrixe?

PPri.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Revenge / Ekologiaren gaiñeko liburuak gustetan jat / Musika klasike eta abesti euskaldunak gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Batzuk bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai, baiñe kontrolaute.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek. Bakotxa bere momentuen.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Zapatak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Unibertsidadiek euki dauen eta daukon ibilbidie. Hamen daguen inizatiba enpresariala be aipagarrixe da.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Gauza asko hobetu leikela uste dot, baiñe Mondragueko alkatie izetie 'marroi' bat dala esango neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Beste neurri baten, baiñe hori be 'marroi' ederra da. Lehendakarixe izetekotan, Degurixan eta lau artzainena.

Bizio bat?

Kirolak gustetan jat, eta horren barruen, automobil lasterketak.

Mendi bat?


Degurixa aldie izugarri gustetan jat.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Ez nitzake hiri batera juengo. Norabaittera juetekotan, basora.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Asko daguz, baiñe ez dot izenik esango. Euki doten harremanagaitik, mendizale bi.



"Dirue euki ezkeru, lizentzia atara eta gaur bertan hasiko nitzake karreretan. Baiñe dirue biher.."

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Arafat.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Neure buruakin. Askotan egitten dutzet tranpa neure buruari.

Telebisiñoko programa bat?

Bertatik Bertara, Al filo de lo imposible, Oinak Izarretan...

Eta irratikue?

Euskadi Irratiko tertulixak.

Zertan gastauko zeunke dirua?

Jentie mendi aldera erueten, kaleko ittotasun hori kentzeko.

Zenbat kotxe euki dittuzu?

Batek daki. Hori relatibue da, laneo kotxiek izeten dielako. Urtien hiru edo lau eukitten dittut; hortan, 23 urtien...

Oin lehen baino errexago saltzen da?

Bai eta ez. Kotxiek asko merketu die, eta jentiek errexago erosten dittu. Baiñe oin, asko gabitz kotxiek saltzen.

Lehengo Escort Cosworth-a ala oingo Focus RS-a?

Oingo Focus RS-a. Oingo garairako Focusak dauken teknologixie orduko garairako Cosworth-ak

"Saltzailiek ondo jakin biher daue klientiek ze biher dauen, gero, ze eskeiñi jakittek"

eukena baiño aurreratua goe da.

Kotxe bat probetako zenbat bider igo dozu Untzillara?

Askotan, eta tamalez bati baiño gehixagori sustoren bat edo beste emun be bai.

Eta ezusterik euki dozu?

Bai. Larrixe sekule be ez, baiñe birritan juen naz zelaixan behera.

Ford ez dan kotxe marka bat?

BMW, adibidez.

Lasterketetan dauketzun curriculuma.

Rally Vasco-Navarron bosgarrena izen nitzen behin.

Rallyxek ala 1 Formula?

Rallyxek. 1 Formulatan abixada haundixen ibiltten die, baiñe rallyxetan abildade haundixague biher da. Horrekin batera, peligrusague da rallyxetan ibilttie.

Ze biher da saltzaille ona izeteko?

Alde batetik, merkatue ondo ezaguketie. Bestetik, klientiek ze biher dauen jakin biher dozu, holaxe badakitze-eta ze eskeiñi.

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko zeuke?

Normal ibilli badaue, bai, erosiko neuke.

NIREBIDAIAHURA / Iker Saizar

Nikaragua eta Costa Rica / 2002ko otsailetik aurrera

Costa Rican lehenengo egunak Tamarindon egin zituzten, baina berehala joan ziren handik, polita bezain garestia zen-eta. Tamarindo atzean utzita oiherantz abiatu ziren Arrasateko bi lagunak, Monteverderantz, hain zuzen. Parke nazionala izanda, guztiagatik ordaindu behar zen han: "Harrigarria zen hura. Munduko bazter galdu baten dagoen oiheranean geunden, eta ez nintzen libre sentitzen, guztiagatik ordaindu egin behar genuen-eta".

Gero, Cárberan hiru egun egin zituzten eta Puertoviejorantz jo zuten. Puertoviejon hainbat egun egiteko erabakia hartu zuten, eta konturatu zirenerako hilabete zeramatzen hantxe. Aste Santua gertu zegoez, etxea ahalik eta azkarren hartu behar zuten errentan, Aste Santuan prezioek gora egiten dute-eta. "Etxe bat errentan hartu gura genuen, baina gutxienez hilabeterako hartu behar genuen". Ikerrek berba bakarrean laburtu digu Puertoviejo: "Paradisua, herri hura paradisua da. Gura beste hondartza geneukan, eta dena guretako. Batzuetan, bizikletak errentan hartu eta hara eta hona ibiltzen ginen. Beste batzuetan, egun-pasa joaten ginen inguruko herri eta inguruak bisitazera".

Herritik joan behar ziren egunean euria egin zuen, eta egun gehiago geratu behar izan ziren; izan ere, arropa, nahiz eta leku lehorrean egon, hezeta-

sunagatik busti-busti eginda zeukaten. Puertoviejotik Jacorako bidea hartu zuten. Jaco bi egun egin zituzten, eta Puntarenas-en egon eta gero, Montezumara joan ziren. Montezuma ere oso polita ei da: "Hango herritarrek esaten dutenez, Montezumak badu zera berezi bat. Jendea liluratuta geratzen da, eta gu ere halaxe geratu ginen. Hasierran uste genuen baino egun gehiago egin genituen han".

Noiz edo noiz hondartzan egiten zuten lo. Bi palmordoren artean hamaka jarri, eta goizaldean, munduko leku lasaienean, eguzkiaren lehen agurraz gozatzekoa aukera izaten zuten. Nikaraguara bueltatzeko asmoarekin, bide luzeari ekin zioten. Helburua, Nikaraguako Karibera iristea. Bluefields-era iritsi zirenean, han ezer berezirik ez zegoez, Corn uharterako bidea hartu zuten. Corn uharreak ere sekulako hondartzak ei ditu: "Nik ez dut inoiz horren ur gardenik ikusi". Etxera itzultzeko ordua iritsita, turismo-hegazkinean joan ziren Managuara, eta han hegazkina hartu zuten. Otsailean hasi zuten abentura azkenetan zen. Hasi eta amaitu, baina tartekoa bizi!

XABIER URZELAI



Costa Rica benetako paradisua dela argitzen dute ilunabarrek.



"Puertoviejon hilabete egon ginen. Hura paradisua zen"

"Corn uhartea polita da, baina jende asko drogaren mende dago"

ZAHARREN ETXETIK



NEREA MAKAZAGA

Herriko erretiratuek oso gustura joaten dira Musakolako kiroldegira, bazkaldu, berriketan egin eta dantzan egitera.

1.083 erretiratuek Musakolan izan zuten urteroko bazkari erraldoia

IKER BARANDIARAN

Joan den zapatuan, Arrasateko erretiratuek urteroko bazkaria egin zuten Musakolako kiroldegian. Urtero moduan, SUDCeok antolatuta zuten bazkaria eta Arrasateko Udaleko Ongizate Sailaren laguntza izan zuten.

Aurten ere SUDCeok eta Udaleko Ongizate Sailekoek Musakolako kiroldegiko kantxa betetzea lortu zuten. Guztira, 1.083 lagunendako platerak jarri zituzten. Auzo Lagunekok eta SUDCeok lan handia izan zuten denei jaten ematen.

Musakolara joan aurretik, erretiratuek meza entzun zuten San Juan Bautista elizan, eta 14:00ak aldera, Musakolako kiroldegira jo zuten. Horretarako, kiroldegira joateko, hain zuten, autobus bi doan jarri zizkieten, eta erretiratu asko joan ziren autobusez kiroldegira. Dena dela, autobusez, autoz zein oinez, erretiratu gehienak garaiz heldu ziren urteroko hitzordura, bazkaltzeko eta eguna ondo pasatzeko asmoz.

Eta gose zirela ere erakutsi zuten; izan ere, oso gustura jan zuten, eta, egia esatearren, menua ere ez zen edonolako ia: urdaiazpikoa, zainzuriak, entsalada, erredondoa, pastela, izozkia eta kafea izan zuten bazkaltzeko. Horiez gainera, beste batzuk zigarror-puruekin ere ausartu ziren.

Bazkalostean, berriz, SUDCeok eta Udaleko ordezkariak, Xabier Zubizarretak eta Amaia Larrañagak, besteak beste, bazkaltzera joandakoen arteko gizon eta emakume nagusien sari bana eman zieten.

SARIAK ETA DANTZALDIA

Candido Moraleja izan zen bazkaltzera joan zen gizonezko nagusia; 101 urte ditu Candido Moralejak, eta txapela eta opariak eman zizkioten. Bazkaltzera joan zen emakume nagusia, aldiz, Brigida Monje izan zen; Brigida Monjek 92 urte ditu eta zapatuan, lore sorta eta opariak jaso zituen.

Musakolara joandako arrasatear nagusienak omendu ostean, erretiratuen artean herriko dendek eta enpresek emandako opari mordoak zozketatu zituzten. Batek baino gehiagok izan zuten etxera zer eraman.

Eta horren guztiaren ondoren, dantzaldia egin zuten, zuzeneko musikarekin. Erretiratu askok eta askok erakutsi zuten sasoiaren daudela eta dantza egiten oso ondo dakitela.

Candido eta Brigida

Candido Moraleja eta Brigida Monje gustura joan ziren etxera zapatuan. Izan ere, omenaldi beroa egin zieten Musakolako kiroldegian batutako guztiek.

Candido Moralejak 102 urte egingo ditu urriaren 3an, eta Brigida Monjek 92 urte ditu.

Esan beharra dago, Arrasateko erretiratu guztiak ez direla bazkari horretara joaten.

LABUR

Gipuzkoako 15.000 lagunek bat egin dute Adinduen Aldeko Agiriarekin

Adinduen Aldeko Agiriak 15.000 sinadura baino gehiago jaso ditu Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuko diputatu Maximo Goikoetxeak adierazi zuenez. Agiria martxoan aurkeztu zuten hainbat herritan, adinduen eskubideak aldarrikatzeko. Adina ezin dela bazterketarako arrazoia izan azpimarratu zuten ekimenaren antolatzaileek, bai eta lanean jarraituko dutela ere.

Isabelle Pinacho, Arrasateko pertsona nagusia, hil egin da


Joan den astelehenean, Arrasateko pertsona nagusia, 101 urte zituen Isabelle Pinacho, hil egin zen Arrasaten. Isabelle 1900. urtean jaio zen Valladolideko Mucientes herrian eta hogeita zazpi urte zituela Arrasatera etorri zen. Haren aldeko elizkizunak San Juan Bautista parrokiaren egin zituzten. Egun, Arrasateko emakume nagusia 1902an jaiotako Maria Arabalaza Abarrategi da.

ZAHARREN AHOTIK

Bixente Iturbe 'Santamaña'

ERRETIRATUA ETA MUTILZAHARRA

Bixente 1916. urtean jaio zen, Arrasateko *Santamaña* baserrian. Gero, Aldaira bizi izatera joan zen, baina baserria ez du ahaztu.



Baserrian jaio zinen. Lan asko egin zenuen han?

Bueno, *Santamaña* baserrian jaio nintzen. Bost anai-arreba ginen. Bederatzi urterekin Francisco Urrutia irakaslearekin Udaletxeko Eskolan ikasten ibili nintzen, hamalau urte egin nituen arte. Tartean, baserriko lanak ere egiten nituen, jakina.


Igeltsero ere ibili zinen, ezta?

Bai. Hamalau urterekin, eskolatik irten bezain laster, Bixente igeltseroarekin lanbidea ikasten hasi nintzen. Bixentekin hasi nintzen, eta aurrerago, ehun urte egin berri dituen Patxi Egidazurekin jarraitu nuen. Eta Patxiarekin pasarte bitxi bat bizi izan nuen: gerran, lehergailu batek Zarugaldeko Arrasate okindegi ondoko zubia bota zuen. La Torre komandanteak Patxiri eta bioi deitu eta bi orduan

zubia konpontzeko agindu zigun. Denbora horretan egiten ez bagenuen, fusilatu egingo gintuela. Patxi esan zion zuzenean, lana hasi barik, fusilatzeke, ez zuela lana hasterik merezi.

Eta fabrikaren baten ibili zinen lanean?

Gerra bukatuta Elman ibili nintzen, Torno Revolver makinetan. Gero, basoan lanean ibili nintzen, eta 1965ean, Fagorren sartu nintzen. Bero-gailuak eta izozkailuak egin nituen, 65 urterekin erretiratu nintzen arte. Orduetik hona, Danok Bat elkartera joaten naiz, egunero, lagunengana.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Banatzaileak behar dira Arrasate Presserako
Izena eman 943 71 23 91 telefono zenbakira.
BALDINTZAK:
- 15 urte baino gehiago edukitzea.
- Euskaraz jakitea.



ARRASATE
Aitor Iraeta
Maiatzaren 24an, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Aitzol Mondragón
Maiatzaren 26an, 9 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Hodei Uranga
Ekainaren 1ean, 24 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Beñat Bergaretxe
Ekainaren 3an, 20 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Danel Roa
Maiatzaren 31n, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Isa Dávila
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Izaro Uribarren
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Jon Egjidazu
Ekainaren 9an, 4 urte.
Zorionak! Jone eta Madalen.



ARRASATE
Jon Fernández
Ekainaren 6an, 27 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Joxe Fernández
Ekainaren 5ean, 28 urte.
Zorionak! Aupa, web! Koadrilakoak.



ARRASATE
Kepa Larrea
Maiatzaren 29an, 22 urte.
Zorionak! Etxeko hiru sorginak.



ARRASATE
Lexuri Doyague
Ekainaren 4an, 13 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Markel Irazu
Maiatzaren 28an, 11 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Mikel Iribecampos
Ekainaren 1ean, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Raúl García
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak eta Olaia.



ARRASATE
Iker Bengoa
Ekainaren 6an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Itziar Uribarren
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Elena Goirizelaia
Maiatzaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Josu Letona
Ekainaren 5ean, 8 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Xabier Muxika
Ekainaren 2an, 3 urte.
Zorionak! Aita pontekoan partetik.



ARRASATE
June Rodríguez
Maiatzaren 30ean, 3 urte.
Zorionak! Aitaita Felix eta amama Use.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.
Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Otolara lizentziaduna, 31.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **ekainaren 1etik 15era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.**

Aldez aurretik deitu!



Zenbaki


Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 • Faxe: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@zenbaki.es

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



“Nor bere gorputzarekin gustura egotea da gure helburua”

Lirain, osasun eta estetika zerbitzuan lan egiten duen zentroa da. Orain, eguraldi ona datorrela eta, askoz ere jende gehiago hurbiltzen da Lirainera, udarako itxura hobea izan nahian. Horretaz guztiaz berba egiteko, arduradunarekin, Mari Carmen Pardorekin, egon gara.

Eguraldi ona datorrela eta, mugimendu handiagoa ikusten duzue Lirainen?

Bai, horrela da. Maiatzetik aurrera askoz ere jende gehiago etortzen da. Uda datorrela eta, jendea gehiago arduratzen da itxurarekin.

Eta zer eskaintzen duzue Lirainen?

Edertasuna eta osasuna. Hori, gorputzaren orekaren bitartez lortzen dugu, nor bere buruarekin gusturago sentitzeko. Dena dela, gehienbat, gorputz eta aurpegi tratamenduak eta solariuma eskaintzen ditugu.

Eta zer lortzen da zerbitzu horiekin?

Gorputz tratamenduarekin, lehenik, zirkulazioa hobetzen dugu. Masajeen eta %100 naturalak diren kremen bitartez lortzen dugu. Ondorioz, atxikita ditugun likidoak askatu egiten ditugu, eta bolumena galtzen dugu eta zelulitisa kendu.

Eta aurpegi tratamenduak?

Eguzkiarekin azalak asko sufritzen du, horregatik zaindu egin behar da. Horrekin bi gauza lortzen ditugu: alde batetik, azala hidratatuz udan jasango dituen erasoetatik babestu eta, beste alde batetik, lortzen dugun azal kolore beltzarana politagoa da eta luzeago irauten du horrela.

Tratamendu horiek berdinak dira guztiondako?

Ez. Kontuan hartuta gorputz bakoitza desberdina dela, lehenik eta behin, diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu. Horren ondorioz, pertsona bakoitzak dituen berezitasunak kontuan hartuta, arlo batzuk gehiago edo gutxiago lantzen ditugu.

Kolore beltzarana aipatu duzu. Zelan hartu behar da solariuma?



Mari Carmen Pardo

LIRAIN ESTETIKA ETA EMAKUME GIMNASIOKO ARDURADUNA

“Lirainen, edertasuna eta osasuna gorputzaren orekaren bitartez lortzen dugu, norberarekin gusturago sentitzeko”

“Gorputz tratamenduekin, atxikita ditugun likidoak askatu egiten ditugu, bolumena galtzen dugu eta zelulitisa kendu”

“Mikropigmentazioarekin, gehienbat, ezpain eta bekar akatsak zuzentzen ditugu, beti makilatuta bezala eta prest egoteko”

Gauza guztiak bezala, bere neurrian hartu behar da. Krema bereziak ditugu, azala babesteko eta kolorea azkarago hartzeko eta gehiago irauteko. Gainera, etzandako eta zutikako solariumak ditugu.

Ze beste zerbitzu dituzue?

Kontuan hartuta udan askotan sandaliak erabiltzen ditugula, pedikura asko egiten ditugu, baita gelezko ordezko azazkalak ere.

Azkenaldian, asko entzuten da mikropigmentazioa hitza, eta gainera, Lirainen ez ezik, kanpoko beste zentro batzuetan ere egiten duzu lan. Zertan datza?

Bai, hala da, Donostiara eta Zaragozara, adibidez, asko joaten naiz. Mikropigmentazioa edo makillaje iraunkorra gehienbat ezpainetan eta bekainetan erabiltzen ditugu. Teknika honekin ezpainetan ditugun asimetriak zuzentzen ditugu edo ezpain txikia duenari gehitu egiten diogu, pigmentu berezi batzuen bitartez. Bekainetan, aldiz, ile gutxi duenari ile gehiago izatearen efektua lortzen dugu.

Zenbat denbora irauten du?

Pigmentu hauek 2-3 urte irauten dute, eta beti makilatua eta prest zaudela ematen du. Hondartzan egon eta gero, adibidez, afaltzera joan behar badugu, ez dugu makilatzen inolako denborarik galduko.

Garestiak dira aipatutako zerbitzuak?

Ez, behin zerbitzuak eginda gero mantenimendu programa bat jarraitzen badugu, askotan dirua aurrezten dugu eta emaitzak askoz ere gehiago irauten dute. Gainera, zerbitzu hauek finantzatu egiten ditugu, sei hilabetera, inolako interesik gabe.

Kirol zerbitzua ere baduzue Lirainen, ezta?

Horrela da. Aerobika, mantenimendu gimnasia, *step* eta beste kirol zerbitzu batzuk ditugu. Estetika tratamenduetan ere erabiltzen dugu emaitzak hobetzeko. Nahiz eta kirola urte osoan egitea gomendatu, ekainean eta uztailean eskaintza berezia dugu, eta ez da matrikularik ordaindu behar.


LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA
Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 52 17

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko maiatzaren 31 / 29. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goienà.com

Gai askotariko zerrenda luzea landu zuten osoko bilkuran

UBANE MADERA

Eguaztenean, maiatzari dagokion osoko bilkura egin zuten udalbatzarrak. Besteak beste, Manex Agirre zoriontzea, udalbarrutiko ganadu aprobetxamenduaren araudia, Eudelen mozioa eta Batasunak aurkeztu dituen beste bi mozio aztertu eta erabaki zituzten zinegotziek.

Gai zerrenda luzea eta orotarikoa izan dute zinegotziek hil honetako osoko bilkuran. Hasierako puntuen artean, Arabako Bertsolari Txapelketan egindako lanagatik Manex Agirre zoriontzeke proposamena aztertu zuten; baita, Aramaioko bideoa egitea ere. Azken hori onartuz gero, orain hasiko dira herriaren gaineko irudiak hartzen, eta datorren urtean argitaratuko dute.

Horrekin batera, udalerriko ganadu aprobetxamenduak arautzeko ordenantza ere izan zuten berbagai. Izenak esaten duen moduan, ganaduekin lotutako nondik norako guztiak (errola, azpiegiturak, artzaintza garaia...) arautzea da horren helburua. Bestalde, kiroldegiaren erabilera araudia erabakitzeko proposamena ere egin zioten udalbatzarrari; hau da, kiroldegiko kantxan zozketa, ordutegia, eta abarrekoak zehaztea.

Eta bileraren bukaera aldera, besteak beste, hiru mozio eztabaidatu zituzten. Batetik, eta Batasunaren ilegalizazioa dela-eta, Batasuneko udal taldeak hori salatzen aurkeztutakoa. EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zion horri. Bestetik, torturaren eta atxilotuen eskubideen urraketa salatzen zuen beste mozio bat aurkeztu zuen Batasunak. Eta, bukatzeko, EAJk eta EAK Eudelen onartutako mozioa aurkeztu zuten, "demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa".

Edozelan ere, albiste hau idaztean oraindik bilkura bukatu barik zegoen, hortaz, ez dugu jakiterik zinegotziek zein erabaki hartu dituzten.



UBANE MADERA

Herriko ganadu aprobetxamendua arautzeko ordenantza.



Maiatzeko Plazako Amak Aramaion

Zapatuan, Argentinako Maiatzeko Plazako Amen ordezkariak Aramaion izan ziren, Iturrieta sagardotegian. Etxerat elkarreko zenbait kiderekin bazkaria izan zuten; senideak preso, ihesean edo erbestean izateak dakarren sufrimenduak elkarrekin zituen Maiatzeko Plazako Amak eta Etxerateko kideak. Bi elkarteotako kideek eskubidetzat jotzen dute euren senideak maitatu, laztandu eta haien alde borrokatzea. Torturen eta sakanaketek segitzen duten bitartean, Euskal Herrian demokraziarik ez dagoela nabarmendu zuen Hebe de Bonafinik.

ATREBENTZIAEZPADA / Zer gustatuko litzaizuke herriko jaietarako?



NAGORE MUÑOZ
Ikaslea

Gustatuko litzaizuke jaietan Alaitz eta Mainer etortzea eta barrakaren bat. Bestela, uste dut jaiak apur bat motzak direla, baina, gustatzen zaizkit.



BEA AZURMENDI
Ikaslea

Gustatuko litzaizuke umeendako jokoak (parkean jolasteko), eta kaleko saltokiak egotea. Niri gehien gauean ibiltzea gustatzen zait.



ESTEBAN NÚÑEZ
Ikaslea

Futboleko jokatzea eta barrakak egotea gustatuko litzaizuke, egietako barrakak. Jaiak gustatzen zaizkit, batez ere, futbola.



IKER AGIRRE
Ikaslea

Kontzertuak, punk kontzertuak gurako nituzke; oraingoak modukoak, baina hobeak. Bestela ondo daude jaiak, giro ona egoten da.



AITOR ABARRATEGI
Langilea

Plater tiroketa egoten da eta hori gustatzen zait. Bestela ondo daude jaiak, ez nuke egun gehiagorik gehituko, lau egun nahikoa eta sobera dira.

LABUR

Rayo Aldeano Zaldibarko finalera iritsi da berrito

Bigarren urtez, Aramaioko Rayo Aldeano areto futbol taldea Zaldibarko Txapelketako finalera iritsi da. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, jokatuko dute finala, Azkena You Know talde arrasatearraren kontra. Arratsaldeko bostetan izango da partidua, jakina, Zaldibarran. Iaz, Chapime Dribling taldearen kontra jokatu zuten finala eta garaile atera ziren. Eta Aitor Jauregi Rayo Aldeanoko jokalaririk kontaktatu digunez, aurrean ere gauza bera egitea espero dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/ LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaltzeara	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Górria (Legutio)	945 45 52 52
Taxia eta autobusak	945 44 50 04
San Martin Eskola	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BIHAR, TELLAMENDIRA

Tellamendiko gurutzea txukuntzera joango dira bihar makina bat herritar. Esan genuen moduan, eta Orixol mendi taldeak egindako deiari kasu eginez, auzolan horren helburua da uztailean egingo duten jairako gurutzea berri-berri ipintzea. Irteera 08:30ean izango da, hortaz, laguntzera joateko interesa duena oraindik garaiz dabil, plazan agertzea besterik ez du. Aramaioko Udalak ordainduko du gurutzea berritzeko behar den materiala, eta baita, laguntzera doazenen bazkaria ere.

ZUBEROARAKO TXANGOIA

Gogoratu herriko tabernetan ipinita daudela Zuberoara joateko izena emateko zerrendak. 53 lagunendako lekua dago, hortaz, interesatuek lehenbailehen eman beharko dute izena. Bidaia datorren ekainaren 15ean izango da. Baina, bihar, zapatua, hiru bat aramaioar Zuberoara joango dira txangoa preparatzea; Mauleko Udalbiltzako ordezkariarekin izango dira horretarako.

EUSKAL ESKOLEN JAIA


Domekan, ekainaren 2an, euskal herri eskolen aldeko jai ospatuko dute Agurainen. *Mugak gaudituz euskara handitu* da aurten-go leloa, eta parte hartzaileek lau festa-guneko ibilaldia izango dute aukeran: Santa Maria plaza, alde zaharra, ikastetxeko kirolgunea eta Aniturri Kiroldegia. 11:00etan hasiko da festa. Hortxe dago, beraz, hitzordua.

GIZARTEA

Artium museoaren autobusa Aramaiora etorriko da

Datorren ekainaren 9an, domeka, zabaldu berri den Artium museoaren autobusa etorriko da Aramaiora. Bizente Goikoetxea plazan izango da, goizean, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Interesa deun edozeinek bisitatu dezake autobusa. ekimen horren helburua da museoaren edukiaren berri ematea. Zelanbait, ikasgela mugikorraren eginkizuna beteko du. Arduradunek adierazi digutenaren arabera, hezitzaile bat, bi ordenadore eta pantaila handi bat ditu, besteak beste, autobus horrek. Museoaren gaineko bideo bat ikusi ahal izango da, eta gainera, museoari bisita birtuala egiteko aukera ere ematen du autobusak.

Horrez gain, autobusa eskoletara ekartzeko aukera ere bada. Kasu horretan, bisitak ikasgelen arabera banatzen dira eta posible da irakasleek eskatutakoaren gainean berba egitea.



HERRIKO AUZOETAN

ETXAGUEN

1406ko dokumentuan ez da aipatzen elizate horretako bizilagunik. Aldiz, 1489 Ibarak Juan Alonso de Mujikaren kontra zuen apaian lekuko izan zirenen artean Martin Echagüen izeneko bat azaltzen da, baita Urrutia batzuk ere, nahiz eta azken horiek izen bereko edozein bi baserrietakoa izan zitezkeen.

Hurrengo mendearen hasieran, berriz, datu gehiago daude; eta datuei esker dakigunaren arabera, ordurako elizatea ondo sendotuta zegoen. Horrek esan gura du, seguruenik urte dezentetik aurretik esistitzen zela auzoa. Posibel da Gantzaga, Oleta eta Etxaguenekin batera Ibarako elizaterik gazteenak izan. Baina, horrela izanda ere, ez dira XIV. mendea baino beranduagoak. Elizate horietako baserrien gaineko informazio gutxi eskuratu dugu. Gehinen gainean bakarrik bere izena eta garai jakin batean esistitu zela dakigu. Beste batzuei buruz apur bat gehiago. Horien artean, ezagunena Uribarren baserria da.

“Aramaioko ibarraren lehe-
na eta oraina”.

Jesus Maria Elejalde
Plazaola

BOTE PRONTOAN/ Xabier Nafarrate · Araba Euskaraz festaren batzordeen koordinatzailea

“Uste dut Araban, azken urteotan, aldatzen ari dela jendeak duen euskararekiko jarrera”


Xabier Nafarrate aramaiorra da, baina, azken 20 urteotan Otxandion bizi da. Gasteizko publicitate enpresa baten egiten du lan eta aurten Araba Euskaraz festaren antolaketa dihardu. Batzordeen koordinatzailea da. Hori aprobetxatu eta festa horri buruz galdetu diogu:

Noiz hasten da horrelako festa bat antolatzen?

Armentia Ikastolak non egin erabaki zuenetik urtebete baino gehiago pasa da. Antolaketa lanetan, berriz, aurreko Araba Euskaraz bukatu eta berehala hasi ginen. Eta, apur bat gogorrago, orain dela bederatzihilabete-edo, irailetik hona.

Zela erabakitzen da non egin?

Urtero, Ikastolen Elkarteko ikastola bati dagokio. Ikastolen Elkartek erabakitzen du zeini. Armentia Ikastolak antolatzen duen hirugarren aldia da hau; lehenengoa duela ia zazpi bat urte Armentian egin zen; duela lau urte, erabaki zen eskualdeko lautada inguruko tokiren batera ateratzea eta Araian egin zen; eta aurtengoan ere erabaki zen gure inguru hurbilenetik ateratzea, eta horrela erabaki zen Zigoitiako udalerrian izatea. Hiru gunek kokatuta dauden herria, berriz,



Ondategi da.

Zein ezaugarri izango du?

Festaren eskema klasikoa da: bost bat kilometrotako ibilbide bat eta hiru festa-gune. Ibilbidearen ezaugarria da inguru naturala dela erabat. Gehiena basoan eta soro artean da, Gorbeia magalean. Bi gune ere horrela egongo dira, eta alde horretatik ere antolaketatik ahalegin berezia egin da inguru zaintzeko eta garbitzeko, hortaz, bisitariei ere gauza bera eskatu gura diegu.

Hiru festa-gune...

Bai, lehenengo gunea Angelu izeneko da. Horko egitaraua izpiritu gaztea duen jendeari zuzendutakoa izango da. Besteak beste, bertsolariak izango dira 13:30ean, eta Manex Agirre arituko da. Bigarren gunea Bengolarrako parkean dago, herrian bertan. Herri

kirolak izango dira (Urrezko Aizkoraren errebantxa, besteak beste), baita, dantzari eta bestelakoak ere. Eta hirugarren gunea Sarragoakoa da. Hortxe izango da, adibidez, hasiera ekitaldia 10:00etatik aurrera.

Zein erantzun espero duzue?

Araba Euskarazek ez du mugitzen Ibilaldiak, Nafarroa Oinezek edo Kilometroek mugitzen duen jende kopuru bera. Antolaketa ere desberdina da, Ikastolak 300 bazkide bakarrik ditu. Aurreikuspenak (aparkalekuak, txosnak...) 40.000 lagunendakoak dira.

Zein egoeratan dago euskara Araban?

Matrikulazioan ikusten da B eta D ereduak nagusi direla irakaskuntzan. Eta, horrelako ekitaldiek (Araba Euskaraz) giroa hobetzen laguntzen dute. Gainera, era guztietako jendeak parte hartzen du horrelakoetan. Uste dut, Araban, azken urteotan, aldatzen ari dela euskararekiko jarrera.

Eta Aramaion noiz?

Aramaioren herri eskola dago, hortaz... Jendeari zer esango zenioke? Animatzeko eta etortzeko, guretako oso garrantzitsua da euren laguntza. Eta, autobidea erabiltzeko, ez bide txikiak.

“Araba Euskaraz aurreikuspenak 40.000 lagunendakoak dira”

“Jendeari esango nioke animatzeko eta etortzeko, guretako oso garrantzitsua da”

ERRETRATUZAHARRA

Neska koadrila
pozik asko San
Juanetan

Herriko jaiak gero eta gertuago daudela-eta, giroa apurtxo bat berotzen hasi eta lehengo San Juanetako horrako argazki hori aukeratu dugu oraingo asterako. 1953. urteko San Juan jaien hirugarren eguna zen; egun onena, gure berriemaileen esanetan: "Jendeak gehien ospatzen zuen eguna izaten zen hirugarrena, gazteendakoa zen, gaur egungo Koadrilen Eguna moduan. Zezena izaten zen, sokamuturra, eta denak joaten ginen ikustera". Gure argazkian San Frantziskoko parrokia ikusten da atzean, hortaz, argazkia Portaloian aterata dago.

Honako hauek agertzen dira ondoko argazkian, ezkerretik eskumara: Leonor Urrutia, Amparito Lezeta, Mari Carmen Etxeberría, Mari Carmen Lartzabal, Maribel Uriarte eta Miren Bedia.

Argazkia: Mari Carmen Lartzabal
Informazioa: Mari Carmen Lartzabal eta Miren Azkoaga
Urtea: 1953



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Viator
ikastola eta
alboko etxeak

Argazki hori berdin-berdin ateratzea ezinezkoa da gaur egun: alde batetik, leku hori asko aldatu delako; eta, bestetik, ezinezkoa delako argazki hori atera zen lekutik berriro ateratzea. Cerrajerako etxe berriek aukera guztiak zapuzten dituzte, eta oraindik ez da posible etxe berrietako balkoien batera igo eta argazkia handik ateratzea. Itxaron egin behar. Lastima.



≈ 1960

San Viator Ikastolako kanpoko aldea gutxi aldatu da, baina barruko aldean azken 40 urteotan aldaketa asko egin dituzte.



2002

Lehenik, Kontzezinoko etxeak egin zituzten. Duela urte gutxi, ikastolaren aurreko aldean zehar den etxe txikiak bota eta berriak egin zituzten.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

LANDALUZE
HARATEGIA-URDATEGIA
Etxeko txorizo bereziak
ITURRIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE



Beren xelebrekeriak mundura zabaldu zituzten.

Ibarrekoak XELEBERRI-n aurkituko dituzu.

XELEBERRI

- Martitzenetan, 20:30ean
- Errepikapena eguztenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Iratxe Eguen**



GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL ALTZARIAK
Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



RKUZ ELEKTRAGAILUAK
Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

